ASTELEHENEKO
# Goienkaria

2008ko martxoaren 10a > Astelehena > IV. urtea > 181. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"Min egin dit ikusteak herriko taberna eta dendak ohiko jardunean lanean"

**Rafa Gomez** PSE-ko zinegotzi ohia > 08



**G2a** Oñatiko bertso txapelketako bigarren saioa > 25

**DEBAGOIENA**
**Unesco Etxearen ekitaldia bihar Arrasaten, Kulturaten** > 05

**KULTURA**
**The Woggles: 1960ko hamarkadak hartu zuen Gaztelekua** > 24

**TXIRRINDULARITZA**
**Markel Irizar, bigarren Paris-Nizako atariko etapan** > 19

**HAUTESKUNDEAK 08** > EMAITZAK DEBAGOIENEAN

# Sozialistak irabazle, jeltzaleak behera, eta abstentzioak ia 20 puntutan gora

**4.451** boto lortu ditu PSE-EEk Arrasaten, duela lau urte baino ia 1.200 boto gehiago

**EAJ** sei herritan nagusitu da, baina 2004an eskualdeko herri guztietan izan zen garaile > 02-04




**ABSTENTZIOAK GORA** Hautetsi Independentistek aktibatu dute abstentzioaren zati nabarmen bat, ia %20koa. Herri batzuetan, gainera, abstentzioa erdia baino gehiagokoa izan da, herri txikietan. Orotara, %44koa izan da abstentzioa ibarrean.



Isaias Carrascoren emaztea; Ainara alaba, eta Paco Garcia. JOSETXO ARANTZABAL

**ATENTATUA ARRASATEN** > DOLU EGUNAK

# Isaias Carrascoren hilketak mina ekarri du Mondragoera bozketa bezperan

Dolu egunak izan dituzte aste bukaeran Arrasaten. Egubakoitzean tiroz hil zuten Isaias Carrasco, PSE-EEko zinegotzi ohia Arrasateko Udalean. Etxe aurrean hil zuen ETAko kide batek, autoan sartuta zegoela lanera zihoanean. Hiru seme-alabaren aita, AP-1 autobideko Bergarako ordainlekuan zebilen lanean. Gertakaria ezagutu eta berehala begi guztiak Arrastera begira egon dira eta Arrasaten politiko buruzagiz eta hedabidez bete da. EAEk izan ezik, gainerako alderdiek gogor salatu dute atentatua. Ezker Batua-Zutik taldeak, EAErekin batera Arrasateko Udal gobernuan zegoenak, erabaki du uztea gobernu ardurak. Gaur arratsalderako manifestazioa deitu dute Arrasaten. > 06-08

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-07
**Elkarrizketa**> 08
**Iritzia** > 10
**Herriak** > 11-16
**Kirola** > 17-21
**Kultura** > 23-26
**Gure taldeak** > 27
**Sailkatuak** > 28
**Irrati-Telebista eta Hitzorduak** > 29
**Berri-zakua** > 30-31
**Azkena** > 32






**SERIO** Arrasateko sozialistak gorakada handia izan dute botoan eta nagusitu egin dira Mindragoen. Baina serio agertu ziren atzo, Isaias Carrasco gogoan. JOSETXO ARANTZABAL

**HAUTESKUNDEAK 08** > EMAITZAK DEBAGOIENEAN ETA HEGO EUSKAL HERRIAN

# Arrasateko atentatuak eragina izan du ibarrean eta Hego Euskal Herrian

Sozialistek gorakada handia izan dute Debagoienean, batez ere Arrasaten, eta irabazle izan dira

**ENEKO AZKARATE** > BERGARA

Sozialistak izan dira irabazle nagusiak Debagoienean ere, Hego Euskal Herrian eta Espainian bezala. Gehien igo dutenak izan dira eta hiru herritan nagusitu dira: Arrasaten, Aretxabaletan eta Eskoriatzan; horrek eman dio garaipena ibarrean. Abstentzioak ere gora egin du. Hautetsi Independentistek aktibatu dute abstentzioaren zati bat: ia % 20. Jeltzaleek behera egin dute. Arrasateko atentatuak eta bipolarizazioak kalte egin die.

Egun lasaia izan zen, bestela, atzokoa. Arazo txiki batzuk izan ezik (Antzuolan, esaterako, *Hau ez da demokrazia* izeneko pankarta bat kendu zien ertzainek herritar batzuei). Normaltasuna egubakoitzean hautsi zen, ETAk Isaias Carrasco mondragoetarra, PSE-EEko zinegotzi ohia, hil zuenean. Egun bitan Arrasate hedabide guztiek berbagai izan dute. Baina atzoko eguna ustekabekorik barik joan zen, oro har. Paskinak agertu ziren boikoterako deia eginez lurrean eta hainbat hauteskunde kolegiotan.



Lorea Leanizbarrutia (EAJ) senataria.

**SOZIALISTEN GORAKADA**

Nabarmentzekoak: Sozialisten gorakada eta garaipena ibarrean; abstentzioaren gorakada, Hautetsi Independentisten deiari erantzunez; eta EAJren beherakada, herri guztietan izan ez bada ere. Arrasaten, Aretxabaletan eta Eskoriatzan sozialistak nagusitu dira; Bergaran, Oñatin, Antzuolan, Aramaion, Elgetan eta Leintz Gatzagan EAJ nagusitu da. Orain dela lau urte jeltzaleak nagusitu ziren ibarreko herri guztietan.

Abstentzioa %50 baino handiagoa izan da 3 herritan. Ia 20 puntu igo da abstentzioa Debagoienean orain dela lau urteko hauteskundeekiko. Hortaz, aktiboa izan da oraingoan abstentzioa.

Nabarmentzekoa, era berean, Sozialistak Euskal Autonomia Erkidegoan eta Hego Euskal Herrian nagusitu egin direla. Nafarroan UPNk irabazi du, baina beste hiru herrialdeetan PSE-EE izan da garaile. Azpimarratzekoa, azkenik, datozen lau urteotan senatari debagoiendar bat izango dugula Madrilen: Lorea Leanizbarrutia aretxabaletarra (EAJ). Leanizbarrutia, ezkonduta dago eta bi semeren ama da. Egun, Donostian bizi da. Zuzenbidean lizentziaduna, eta Irakaskuntzan diplomaduna da.

**Botoen banaketa Debagoienean**




## Sozialistak nagusi EAEko hiru lurraldeetan *

**Bizkaia**

| | Botoak | % | Diputatuak |
|---|---|---|---|
| PSE-EE | 229.998 | %36,93 | 4 |
| EAJ | 193.930 | %31,14 | 3 |
| PP | 114.582 | %18,40 | 1 |
| EB-B | 27.293 | %4,38 | |
| EA | 19.456 | %3,12 | |
| ARALAR | 9.664 | %1,55 | |
| ABSTENTZIOA | 302.688 | %32,49 | |

**Gipuzkoa**

| | Botoak | % | Diputatuak |
|---|---|---|---|
| PSE-EE | 125.294 | %38,92 | 3 |
| EAJ | 76.581 | %23,79 | 2 |
| PP | 46.879 | %14,56 | 1 |
| EA | 25.244 | %7,84 | |
| ARALAR | 17.120 | %5,32 | |
| EB-B | 15.572 | %4,84 | |
| ABSTENTZIOA | 233.378 | %41,81 | |

**Araba**

| | Botoak | % | Diputatuak |
|---|---|---|---|
| PSE-EE | 69.086 | %40,78 | 2 |
| PP | 44.884 | %26,50 | 1 |
| EAJ | 31.731 | %18,73 | 1 |
| EB-B | 7.077 | %4,18 | |
| EA | 5.263 | %3,11 | |
| ARALAR | 2.905 | %1,71 | |
| ABSTENTZIOA | 72.394 | %29,67 | |

**Nafarroa**

| | Botoak | % | Diputatuak |
|---|---|---|---|
| UPN-PP | 131.618 | %39,29 | 2 |
| PSOE | 115.837 | %34,58 | 2 |
| NA-BAI | 62.073 | %18,53 | 1 |
| IUN-NEB | 11.035 | %3,29 | |
| ABSTENTZIOA | 123.168 | %26,75 | |

* Datuak: emaitzen %99,6 kontuan hartuta, Nafarroakoak izan ezik (%100).

## Arrasate




**PSE-EE IRABAZLE** Lehenengo indarra bilakatu da PSE-EE, baina gainera, aurreko hauteskundeekin konparatuz, 1.000 boto baino gehiago eskuratu ditu. Gainerako alderdiek behera egin dute boto kopuruan, eta abstentzioa ez da %41era iritsi.

## Bergara




**EAJ BEHERA ETA PSE-EE GORA** EAJk jaso ditu boto gehien, baina duela lau urtekoekin alderatuz, bost puntu behera egin du. PSE-EEk, berriz, 13 puntu egin du gora. Gainontzeko alderdiek behera egin dute. Abstentzioa handia izan da; %46,22.

## Oñati




**PSE-EEK BEDERATZI PUNTU GEHIAGO** Oñatin EAJ nabarmen nagusitu da, 2004an baino 900 boto gutxiago jaso badituere. PSE-EEk kenduta, gainontzeko alderdiek bizpahiru puntu galdu dituzte. Sozialistek, aldiz, bederatzi puntu gehiago eskuratu dituzte.

## Aretxabaleta




**PSE-EE INDARTSUEN** Alderdi sozialistaren gorakada da gehien nabarmentzen dena, lehen indarra izatera pasa da-eta, baina gainera bere historiako daturik onenak eskuratu ditu. EAJk hamar puntu inguru galdu ditu eta Aralar laugarren indarra izatera pasa da.

## Eskoriatza




**PSE-EE NAGUSI** PSE-EEk gorakada nabarmena izan du Eskoriatzan; Duela lau urteko hauteskundeetan baino 242 boto gehiago jaso ditu. Gainontzeko alderdiek behera egin dute. Abstentzioa, berriz, 17 puntu igo da.

## Antzuola




**PSE-EE ETA EZKER BATUA, GORA** 84 boto galduta ere, EAJk eskuratu ditu Antzuolan boto gehien (318). Hori bai, 2004ko datuekin alderatuta PSE-EEk nabarmen egin du gora, 12 puntu pasatxo. Ezker Batua da gora egin duen beste alderdia, ia bi puntu.

## Aramaio




**EAJ GARAILE ETA ABSTENTZIO HANDIA** Independentistek egindako abstentziorako deia igarri eta erdiak baino gehiagok ez du botorik eman. Baina aipatzekoa da PSE-EEk izan duen ia zazpi puntuko igoera eta EAJ izan dela garaile. EA jaitsi da gehien eta gero, Aralar.

## Elgeta




**EAJ NAGUSI ETA PSE-EEK GORA** EAJ nagusitu da; botoen %44,32 jaso du. Hala ere, 2004ko datuekin konparatuz behera egin du, PSOE ez beste alderdi guztiak moduan. Abstentzioa aurreko hauteskundeetakoaren bikoitza izan da.

## Leintz Gatzaga




**ABSTENTZIO ALTUENA** Gatzagarren ia %60a ez zen atzo Herri Eskolara botoa ematera joan; ibarrean, Gatzagan igarri zen abstentzioa gehien. PSE-EE, PP eta EA alderdiek ez zuten beherakada nabarmenik izan, gainontzekoek bai.

**HAUTESKUNDEAK 08** > IBARREKO PROTAGONISTAK

# Bezperako atentatuaren ostean, bozketa eguna normal igaro da


Juan Luis Bikuña, EAJko ordezko hautagaia Senaturako. J.A


Peli Beltran de Heredia (Aralar) botoa ematen. J.A


Joseba Ugalde (EB) hautagai ordezkoa Senaturako. JOSETXO ARANTZABAL


Pello Urizar, EAko Senaturako hautagaia. J.A


Bitxikeriak ere bai kartazal barruan. J.A


Aritz Arrieta, Arrasateko zinegotzi sozialista, botoa ematen Musakolan. JOSETXO ARANTZABAL


Santa Anako mojak, botoa ematen, Oñatin. JOSETXO ARANTZABAL


Hautetsi Independentisten papeletak. J.A


Herritarrak botoa ematen, Bergaran. JOSETXO ARANTZABAL

## ESANAK

### Mikel Lete
EAJ

Garbi ikusten da Bergaran lehen indarra izan garela eta baita Arrasateko atentatuak baldintzatu dituela emaitzak. Estatu mailako bipolarizazio kanpainak izan du eragina argi eta garbi.

### Paco Garcia
PSE (PSOE)

Lehenengo indar politikoa izan gara. Demokraziak irabazi du gaur, abstentzioa eskatu dutenen gainetik. Garai berri bat irekiko da Arrasaten: askatasuna, demokrazia eta zuzenbide estatuarena.

### Agurne Barruso
HAUTETSI INDEPENDENTISTAK

Oso balorazio ona egiten dugu, abstentzioaren alde 200.000 laguneтik gorak egin dute eta. Kriminalizazioa eta errepresioa jasan arren, hor dago independentziaren hautua.

### Pello Urizar
EA

Orokorrean emaitza txarrak izan dira abertzaleontzat. PSOEri gora egiten lagundu dio ETAk. Ikusi besterik ez dago Arrasateko emaitzak. Ezker abertzaleak ere badu erantzukizuna.

### Oxel Erostarbe
ARALAR

Gure apustua Euskal Herriari Bai zen, EAJk, EAk eta EBk atzera bota zutena. Erabakitzeko eskubidearen alde gauden alderdiok badugu zer hausnartu. Orain dela lau urteko emaitzei eutsi diegu.

### Itziar Lamarain
PP

PPk Arrasaten puntu bat galdu izana, azken egunotako gertaeren ondorioa izan daiteke. Bestalde, PNV-EAJk behera egin du nabarmen; argi dago, Euskadi nazionalista izateari uzten ari dela.

### Karmelo Perez
EB

PSOE eta PPren arteko lehiak kalte egin digu argi eta garbi. Ezker botoak PSOEren alde egin du Arrasateko atentatuaren ostean, eta gaitzerdi. Aralarren emaitza onak ere nabarmenduko nituzke.

**EUSKARA** > ESKAERAK EGITEKO EPEA

# Martxoaren 31ra arte eska daiteke Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagiria

Bikain ziurtagiriak hiru maila eta hiru kolore ditu, maila bakoitzeko bat: beltza, zilarra eta ebaluazioan aitortutako euskararen erabilera eta presentzia neurtzen ditu


**AITORPEN OROIGARRIA** Argazkian, Juan Jose Ibarretxe eta Goienako presidente Estepan Plazaola. GOIENKARIA

**MIREIA BIKUÑA** > BERGARA
Enpresen munduan eta esparru sozio-ekonomikoan euskararen etengabeko normalizazioa ebaluatu eta egiaztatuko duen Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagiria eskatzeko epea zabaldu du Jaurlaritzak. Hortaz, ebaluatua izan gura duen erakundeak eskabidea, *www.euskalit.net/bikain* web gunean bete beharko du.

Bikain ziurtagiria "ofiziala, publikoa eta doakoa" da.

**HIRU KOLORE**
Talde ebaluatzaileak lau ardatz ebaluatuko ditu: erakundearen irudia eta komunikazioa, kanpo harremanak, barne harremanak eta hizkuntza-kudeaketa. Hiru maila eta hiru kolore ditu Bikain ziurtagiriak, maila bakoitzeko bat: beltza, zilarra eta urrea. Egiaztapenaren hiru mailak ebaluazioan aitortutako euskararen erabilera eta presentziaren neurrikoak izango dira, baita entitateak hartutako hizkuntza-irizpideen errotze eta garapen-mailaren araberakoak.

**PROIEKTU PILOTUA**
Iaz landu zen proiektu pilotuan, Goienak hartu zuen parte beste zortzi enpresekin batera; besteak beste, Eroski, Euskaltel, Matia Fundazioa eta CEGASA.

## 'Geurea da giltza, emakumeok aurrera' lelopean konzentrazio isila

Emakume langilearen nazioarteko egunean Arrasaten egin zen ekintza bakarra, Emakume Kontseiluak bultzatutako konzentrazio isila izan zen. Eguneràko antolatutako gainontzeko ekitaldi guztiak, bertan behera uztea erabaki zuten antolatzaileek.

Hasiera baten manifestaziorako deia egin bazuten ere, Seberon konzentrazio isila egitea erabaki zuten gero. Hogei minututako iraupena izan zuen 19:00etan hasi zen hitzordu isilak. Isilunearen ostean, txalo zaparrarada batekin amaitu zuten. Adin guztietako gizon eta emakumeak bildu ziren.



JOSETXO ARANZABAL

**INGURUMENA**

## Unesco Etxearen ekitaldia bihar

Klima-aldaketari buruzko mahai ingurua egingo dute Kulturaten

**M.B.** > BERGARA
Klima-aldaketari buruzko Nazio Batuen txostena aurkeztuko du Unesco Etxeak, bihar, 18:30ean, Arrasaten. Goiena Komunikazio Zerbitzuen eta Arrasateko Udalaren laguntzarekin. Gainera, Kulturaten antolatu duten mahai ingurua doakoa da.

Bestalde, Euskadiko Kutxa, Mundukide, Ulma, Irizar eta Naturgintza Fundazioa dira biharko mahai inguruko enpresa laguntzaileak.

**ILDO NAGUSIAK**
Biharko mahai inguruan, klima-aldaketak giza garapenean duen eragina aztertuko dute. Gainera, Nazio Batuen txostenaren ildo nagusiak azalduko dituzte eta Euskal Herriko ikuspegitik jorratuko dituzte.

Unescoren txostenak dio klima-aldaketa ez dela etorkizuneko kontua bakarrik, dagoeneko bere eragina "sufritzen" gabiltzala.

Era berean, Nazio Batuen txostenak azpimarratzen du klima-aldaketari aurre egin ezean garapenak inoizko "atzerapenik handiena" izango duela.

**LAU HIZLARI**
Arrasateko alkate Ino Galparsorok irekiko duen mahai inguruan lau lagunek hartuko dute parte: EHUko Hidrogeologiako irakasle katedradun, Iñaki Antiguedadek; EHUko Ingenieritza Goi Eskola Teknikoko irakasle, Gorka Buenok; IHOBE-Ingurumen jarduketarako Sozietate Publikoko teknikari, Izaro Basurkok; eta, Unesco Etxeko Ingurumen Saileko arduradun, Josu Sanzek.





**HUNKITUTA** Isaiasen senideek eta lagunek ezin izan zuten emozioari eutsi. Goian, Sandra, Isaiasen alabarik zaharrena, senide batekin, Jesus Egiguren eta Paco Garcia sozialisten ondoan, zapatuko kontzentrazioan.

**ARRASATE** > ISAIAS CARRASCOREN HILKETA

# Mina ekarri du Carrascoren hilketak; Arrasateko udal gobernua, hautsita

EAEk izan ezik, alderdi guztiek dei egin dute gaurko manifestazioan parte hartzeko

Atentatuak EAE eta EB-Zutik alderdien arteko koalizioaren apurketa ekarriko du

**EDU MENDIBIL/GOIENA**> ARRASATE

Isaias Carrascoren hilketa salatzeko manifestazioa egingo da gaur arratsaldean 19:00etan. EAEk izan ezik, Udaleko alderdi guztiek bat egin dute deialdiarekin. Udal gobernuan diren EAE eta EB-Zutik koalizioaren apurketa ekarriko du atentatuak. Halaxe iragarri du Ander Rodriguez EBko zinegotziak.

PSE-EEko zinegotzia izandako Isaias Carrasco tiroz hil zuten hauteskundeen bezperan eta minez betetako uneak bizi izan dira egubakoitzetik Arrasaten. Alderdi politikoeek zein herritarrek gogor salatu dute atentatua.

**HILETA-ELIZKIZUNA**

Zapatu arratsaldean, plazan bildutakoen txalo artean, herriko zinegotzi eta kide sozialistek hartu zuten hilkutxa, eta azkenik, Isaias Carrasco zenaren senitartekoek sartu zuten elizara. Udaletxeko osoko bilkuren aretotik elizaraino, gazte sozialistek zeramaten lore koroen atzetik egin zuten bidea.

Senide eta politikariez gain, asko izan ziren bertaratu ziren herritarrak. Juan Maria Uriartek, Donostiako gotzainak esan zuen meza, eta ETAri exijitu zion behin betiko desagertzeko: "herri honek ez du nahi, ezin du, egoera honen gaineko etsia hartu, eta ETAri exijitzen dio behin betiko desagertzeko" esan zuen Uriartek. Lepo bete zen San Joan Bataiatzailearen eliza, eta ehunka pertsonak kanpotik entzun zuten meza, horretarako propio ipinitako bozgorailu batzuen bitartez. Komunikabideak ez ziren sartu ez hil kaperan eta ez eliza, familiak hala eskatuta.

**KONTZENTRAZIOA ZAPATUAN**

Zapatu eguerdiko kontzentrazioan, milaka herritar batu ziren Arrasateko plazan, Carrascoren hilketa gaitzesteko. EAEkoak izan ezik, alderdi guztietako ordezkariak izan ziren: besteak beste, PSOEko buruzagiak, Maria Teresa Fernandez De la Vega presidenteordea, Manuel Chaves Andaluziako presidentea, Javier Ares edo Diego Lopez Garrido. Beraiekin batera, esan bezala, beste alderdietako politikoak: EAJren aldetik Juan Jose Ibarretxe Lehendakaria, Iñigo Urkullu, Miren Azkarate Jaurlaritzako bozeramalea, Andoni Ortuzar, Joseba Egibar edo Josu Jon Imaz EBBko presidente ohia; PP alderdiko Maria San Gil, Eusko Alkartasunako Unai Ziarreta presidentea eta Rafa Larreina EAko parlamentaria; Aralarreko Ain-

## Arrasateko hautetsi independentistek elkartasuna adierazi dute, marko demokratikoa aldarrikatuz; Eusko Alkartasunak gaurko manifestaziorako deia luzatu du

Arrasateko hautetsi independentistek kaleratutako oharrean zera jasotzen da: "Gure elkartasuna adierazi nahi diegu Isaias Carrascoren senitarteko eta lagunei. Indarkeria ekintza guztiek bezala, agerian uzten du eskenatoki demokratiko bat lortzeko ezinbestekotasuna, askatasunean eta herri honi dagozkion eskubideen aitortzan oinarrituta. Euskal Herria gatazka luze bat jasaten ari da urte luzeetan. Gatazka honen sustraietara jo behar da; gaitzespen hutsak ez du arazoa konpontzen. Euskal Herrian marko demokratiko bat eraikitzeko bide ematen duen akordio politiko batek soilik lortuko du gatazka politikoari irtenbidea ematea". Arrasateko Eusko Alkartasunak hilketa gaitzetsi du; "bere familiari bereziki eta sozialista familia osoari ere besarkadarik beroena bidaltzen diegu. Bide batez, astelehenean ospatuko den manifestaldian parte hartzeko eskaera luzatzen diegu Arrasateko herriari".

## PSE-EEko udal taldeak sei puntu aurkeztu zituen eta lau onartu zituzten

PSE-EEko udal taldeak sei puntuko eskaera egin zuen bozeramaleen batzordean, egubakoitzean. Horietatik lau onartu zituzten. EAEk izan ezik, gainontzeko alderdi guztiek alde bozkatu zuten lau puntu horien alde: atentatuaren gaitzespen borobila, Isaias Carrascoren hil-kapera udaletxean jartzea, Eudelek zapaturako deitutako kontzentrazioan parte hartzea eta gaurko manifestazioa deitzea.

## Kontzentrazioak ibarrean eta Aretxabaletako Udalaren oharra

Kontzentrazioak egin ziren zapatuan ibarrean. Aretxabaletako Udalak ETAren biolentziaren kontrako aldarrikapena egin du, Carrascoren familiarekin bat eginez. "Bakea lortzeko bideak demokrazia eta bizitzarekiko errespetua dira. Edozein atentatu, mehatxu edota gogorkeria jasangaitza da; Isaias Carrascoren bizitzaren kontrako atentatua erabat gaitzetsi nahi dugu; ETA betiko eta ahal den azkarren desagertzeko deia eta exigentzia aldarriktuz".



JOSETXO ARANTZABAL



**HILETA** PSE-EEko kideek eraman zuten hilkutxa udaletxetik San Juan parrokiaraino. JOSETXO ARANTZABAL



**ARRASATEN** Izaskun Bilbao, Lopez Garrido, Aintzane Ezenarro, Ares, Beloki, Miren Azkarate, Azkarraga, Egibar eta San Gil. J.A.



**ZAPATERO** Espainiako gobernurako PSOEko hautagai Zapatero, Patxi Lopez eta alderdiko beste hainbat kiderekin, ostiralean. J.A.



**LORAK** Isaias Carrasco hil zuten lekua lorez eta kandelez beterik zegoen zapatuan. JOSETXO ARANTZABAL

tzane Ezenarro; Gaspar Llamazares IU-EBko Idazkari Orokorra; Candido Mendez UGTkoa eta abar luze bat. Egubakoitzean Arrasaten izan ziren Jose Luis Rodriguez Zapatero eta Mariano Rajoy Espainiako gobernurako hautagaiek ez zuten parte hartu kontzentrazioan. Edozein modutan, herritar anonimo pilo batek bat egin zuen deialdiarekin bat eta Arrasateko plaza jendez lepo egon zen. Komunikabide ugari izan dira Arrasaten, gertatutakoaren berri ematen.

**ALABAREN HITZAK**

Ordu laurdeneko kontzentrazioaren ostean, Isaias Carrascoren alaba nagusiak, Sandrak, agerraldia egin du komunikabideen aurrean, Manuel Chavesen babesarekin. Zera adierazi du: Arrasateko herriari bihotzez eskertu nahi diot emandako laguntza. Gure amarekin eta anai-arrebekin izan duten jarrera eskertzekoa da momentu latz hauetan. Sozialisten babesa eskertu nahi dut baita. Askatasuna, demokrazia eta ideia sozialistak defenditzearren hil dute gure aita. Hil dutenak koldar batzuk baino ez dira, eta nire aita aurpegia eman zuen gizon ausarta zen. Batez ere zera eskatu nahi dut: nire aitaren erailketa ez dezala inork manipulatu. Hori ez dugu inondik inora onartuko. Puta-seme batzuk dira. Gainerako alderdiek gogor salatu dute atentatua, ekintza ETAri leporatuz eta atzokohauteskundeetan parte hartzeko deia eginez.

Gaur, esan bezala, atentatua gaitzesteko manifestazioa izango da Arrasaten, 19:00etan plazatik abiatuta.

**bere ustez**



Aritz Arrieta *

# Agur Isaias, agur

Kalearen erdian lurrean zinen. Betaurrekoak zure ondoan. Odolez beteta, begiak zabalik. Arnasa hartzen zenuen. Oraindik bizitzari eusten zenion. Zerbait esan nahi zenuen, baina ez zinen hitz egiteko gauza. Marian emaztea zure ondoan. "Onik aterako zara", esaten zizun. Sandra alabak besarkatu zintuen. Babestu nahi zintuen. Sandrak dizun amodio amaigabea sentiarazi nahi zizun, mirari baten zain. Bizi irauteko borrokatzen ari zinen. Ikusten genuen, sentitzen

**"Oihu lazgarriak ziren; begiak ixtean berriro entzun ditzaket. Nahiago dut esna egon"**

genuen. Baina Marianek, Sandrak, Rafik, Pacok edo nik neuk ezin genuen borroka horretan lagundu. Gorputzean bost bala zenituen. "Aupa, Isaias. Onik aterako zara".

Minutuak igarotzen ziren eta oihuak entzuten ziren. Oihu lazgarriak ziren; begiak ixtean berriro entzun ditzaket. "Hil egin dute! Hiltzaileak!". Begiak ixteko beldur naiz. Nekea izan arren, nahiago dut esna egon.

Eta anbulantzia ez zen iristen. Desesperatuta ginen. Animuak ematen saiatzen ginen. Azkenik, anbulantzia. Itxaropenari eutsi genion, biziaren mirariari. Gertatutako izua asimilatzen hasiak gara gaur. Nekeza da berba egitea eta gure hitzak gaziak dira. Tragedia ikaragarri bat gertatu da gure herrian, Arrasaten. Marian, Sandra, Ainara eta Adeiren bihozmina sufritu dugu. ETAk eragindako mina, defentsarik gabeko gizon baten aurka armak erabilita.

Aita baten hutsunea inoiz ez da jasangarria. Baina Sandrak esaten digu aurrera egingo dutela. Bizitza aurrera doa. Badira Sandra bezalako emakumeengandik ikasi beharreko lezioak. Zein harro egongo zen Isaias! Zein harro gauden zutaz! Sandra guretako eredu bat da orain. Bere familiaren bizitza berreraikitzeko indarra eta kemena jarraituko dugu.

* Aritz Arrieta, PSE-EEko zinegotzia Arrasaten eta Isaiasen laguna

Rafael Gomez (Arrasate, 57 urte), PSE-EEko eta UGTko kidea da 1974. urtetik. Zinegotzi izan zen Arrasateko Udalean 1983tik 1987ra. Sozialista militantea da, nahiz eta "astiagatik, nahi baino gutxiago". Al-Andalus kultura elkarteko idazkaria da. Atzo, domeka, goizean elkarteko sukaldean harrapatu genuen, Martxoaren 8ko eguna ospatzeko, emakumeendako bazkaria prestatzen.

**Rafael Gomez** > PSEko zinegotzi ohia Arrasaten

# "Min egin dit ikusteak herriko taberna eta dendak ohiko jardunean lanean"

**ENEKO AZKARATE** > ARRASATE

**"Amorrua eta inpotentzia" sentitzen dituela kontatu digu. Asteburu gogorra izan dela. Tristura sentitu duela zapatuan, Isaias Carrascoren hilketa salatzeko elkarretaratze unean, Mondragoeko taberna eta dendak ohiko jardunean zeudelako. Baina elkarrizketa dela bide dio.**



Rafael Gomez, Arrasateko Al-Andalus elkartean. ENEKO AZKARATE

**Zer moduz zaude?**

Amorrua eta inpotentzia sentitzen dut eta iruditzen zait ahal genuena baino gutxiago egin dugula justifikaziorik ez duen hilketa hau gerta ez zedin.

**Nola eta noiz enteratu zinen Isaias Carrascoren kontrako tiroketaz?**

Semeak deitu zidan Madriletik. Irratian entzun zuen Arrasateko zinegotzi ohi bat hil zutela eta berehala deitu zidan. Lanean nengoen —Fagor Arrasaten dihardu—. Semea utzi eta Paco Gartzia Arrasateko PSE-EEko idazkari nagusiari deitu nion informazio esker. Hark ziurtatu zidan Isaias Carrasco zela tirokatu zutena, baina bizirik zela. Lantokia ospitaletik gertu dagoenez, Isaiasen senitarteko, lagun eta alderdikideen ondora hurbildu nintzen.

**Ospitaleko une horiek zelakoak izan ziren?**

Familiarteko eta alderdikide sozialista batzuek artean eskuak odoletan zituzten. Egoera danteskoa zen: negargura eta inpotentzia sentitu nuen. Rodolfo Ares alderdikideak eman zizkigun albiste zehatzak, hura baitzegoen medikuekin harremanetan.

**Egun hauek nola igaro dituzu?**

Alderdi sozialistako kidea naiz, baina ez naiz horren militantea. Hala ere, uste dut aurrerantzean militanteagoa izango naizela. Bada, nire kasuan, Isaiasen lagun eta senideengandik gertu izan naiz: ospitalean, Mondragon Hotelean, Herriko plazan, hil kaperan… Biharamunean ere berdin, familiaren ondoan.

**Zerbaitek piztu du zure arreta egunotan?**

Arrasaten, kanpoko eta bertako jende asko egon arren dolu egunetan, elkarretaratzean, hileta elizkizunetan, tabernak eta dendak normal-normal, betiko jardunean zebiltzan, ateak zabalik. Hori ez zait gustatu; izan ere, hildakoa beste bat izango balitz, hiltzaileen aldekoa izango balitz, egoera beste bat izango litzateke. Badirudi herri honetan lehen eta bigarren mailako hiritarrak daudela. Akaso beldurragatik izan da hori. Ez dakit. Baina pena hartu dut. Min egin dit.

**Zelakoa zen Isaias?**

Beste alderdikide batzuekin harreman handiagoak ditut, baina lagunak ginen Pedrusco futbol taldean zihardunetik. Egunotan alderdikideekin komentatzen nuen, Isaias ez zela gu besteok bezain politikoa. Albotik bizi zuela politika. Gizon konprometitua zen, baina politika bigarren mailan bizi zuen. Zioen ez zeukala bizkartzainen beharrik, ez ziolako inori kalterik egin. Burutik ere ez zitzaion pasatuko halakorik jasan zezakeenik. Igeltseroa zen. Langile arrunta. Azkenaldian autobideko ordainlekuan zihardduena. Ez zeukan inolako influentziarik politikako erabakietan. Ahulena zen.

UNE LATZAK

**"Familiarteko eta alderdikide sozialista batzuek artean eskuak odoletan zituzten ospitalera gerturatu nintzenean. Egoera danteskoa zen"**

POLITIKATIK KANPO

**"Isaiasek ez zeukan inolako influentziarik politikako erabakietan"**

AHULENA

**"ETAk ahulena zelako aukeratuko zuen…, ez dakit"**

**ETAk zergatik aukeratu zuela uste duzu?**

Ez dut uste Isaiasen aurka propio joan zirenik. Ahulena zelako aukeratuko zuten…, ez dakit. ETA hauteskunde kanpainan egon behar zen eta ahulena aukeratu dute.

**Gertaera honek zatartu egiten du egoera?**

Azkena izan bada, gaitzerdi. Baina, tamalez, uste dut ez dela azkena izango. Hala ere, iruditzen zait irtenbidea ez dela hain zaila. Ez dakit ze interes egon daitekeen sufrimendu honi amaiera ez emateko. Berba eginda pertsonak akordiotara hel daitezkeen uste dut. Eta pentsatu nahi dut irtenbidea gertuago dagoela, baina egubakoitzean Arrasaten gertatutakoak ez du horretan laguntzen. Espero dut gure alkateak, ze nirea ere bada, erabakiren bat hartzea tentsio egoera hauek gainditu eta egun batean irtenbidea aurkitzen laguntzeko. Epe ertain edo luzera elkarrizketa saioak berriro ere posible izatea nahiko nuke.

**Zapaterok egin zuen ahalegina?**

Bai eta berriro ere saiatu beharko litzateke. Ateak ez ixtea nahiko nuke, baina gero eta zailagoa da. ETAren su-etena ez litzateke nahikoa izango. Ezinbestekoa izan beharko litzateke ETAk bere borondatez armak uztea. Agian ametsa baino ez da. Hori geratuko balitz, agintean dagoena saiatu egin beharko litzateke. Eta uste dut horretarako beharrezkoa dela Zapatero egotea Madrilen agintean.

**Batasuneko buru nagusi guztiak kartzelan egotea ez da oztopo soluziorako?**

Buruzagi horiek kartzelan daude, bai. Epaileek dakite zergatik dauden. Edozelan ere, hori ez litzateke oztopo izan behar elkarrizketa bultzatzeko. Agian, kartzelan dauden Batasuneko buruzagi horiek ere ez dute agintzen, beste norbaitek agintzen du horien ordez… Edozelan ere, elkarrizketa saioak bertan behera geratu ez balira eta orain kartzelan dauden buruzagi horiek gehiago egin izan balute elkarrizketaren alde eta Euskadin biolentzia desagertzearen alde, hobeto egongo ginateke.

**Militanteago izan beharko zinatekeela esan duzu. Zergatik?**

1974an UGTko kidea nintzen eta horrek eraman ninduen PSEra. Ez naiz ezertaz damutzen. Baina ikusten dituzunean gaur egungo militante sozialistak, nire alderdikideak, lur jota, amorruz beterik…, militanteago izateko eta gehiago laguntzeko beharra sentitzen dut. Okerrena da laster ez garela honetaz guztiaz akordatuko.

**Ikusitakoak ikusita bizkartzainen beharrik sumatu duzu?**

Zertarako? Inolaz ere ez! Ez zait burutik pasatu ere egin. Bestela denok joan beharko ginateke bizkartzainekin. Arrasaten denek ezagutzen naute eta alde batean zein bestean dauzkat lagunak, benetako lagunak.

## oharrak eta deialdiak

BERGARA
**> Pazkoetara begira kartel lehiaketa**
Bergarako Mendekoste jaietako programaren azala egiteko kartel lehiaketa deitu du Udalak. Lanak entregatzeko epea apirilaren 7ra arte izango da zabalik. Lehiaketan Bergaran bizi edo erroldatutako edozeinek har dezake parte. Argibideak 943 77 91 59 telefono zenbakian.

ARRASATE
**> Urpekaritza ikastaroa Udalaren eskutik**
Getariako KSUB urpekaritza zentroak emango duen ikastaroa apirilaren 4an hasiko da. Dagoeneko izenematе epea zabalik dago; bazkideek 350 euro ordaindu behar dute eta bazkide ez direnek, 370 euro. Ikastaroan parte hartzen dutenek nazioarteko urpekari agiria eskuratuko dute, munduko edozein lekutan urpekaritza egiteko aukera ematen duena. Argibideak: 943 14 01 85 edo 627 93 03 30.

BERGARA
**> Gazteen arteko topaketetan izenematea**
Gazte topaketak antolatu ditu Udalak, 12-16 urte arteko ume eta gaztetxoendako. Apirileko egubakoitzetan izango dira jardunaldiak, eta grafitiak, afari-merienda, patinajea, argazki-rallya... egingo dituzte. Izenemate epea zabalik dago martxoren 13ra arte, nork bere ikastetxean.

BERGARA
**> Udalekuetako begiraleendako izenematea zabalik**
Xipizaro elkarteak zabaldu du uztaileko udaleku irekietan begirale izateko izenemate epea, martxoaren 28ra arte. Agorrosingo ludotekan hartuko dituzte izenak, 17:00etatik 19:30era.

DEBAGOIENA
**> Aste bukaeretako irteerak gazteendako**
Manuel Larramendi Kultur Bazkunak *Euskal Herrian barrena* delako programa berritu eta martxan jarri du berriz. 18-30 urte arteko gazteek irteerak egiteko aukera izango dute. Informazioa: 943 69 64 50.

BERGARA
**> Hainbat ikastaro antolatu ditu Udalak**
Sendabelarren, areto dantzen eta sukaldaritza begetariano eta nutrizioaren gaineko ikastaroak antolatu ditu Udal Kultura Zerbitzuak. Izenematea zabalik dago kultura etxean. Argibideak: 943 77 91 59.

ARRASATE
**> Baratze ekologikoaren gaineko ikastaroa**
Bedoña Batu elkarteak baratze ekologikoaren gaineko ikastaroa antolatu du. Zapatuan, martxoaren 15ean, alde teorikoa eta praktikoa landuko dituzte. Parte hartu nahi dutenek martxoaren 13a baino lehen eman behar dute izena ondoko telefono zenbakian: 630 05 91 98.

BERGARA
**> Pol-Poleko beteranoen irteera**
Apirilaren 13an Sodupe eta Eretze aldera joango dira. Argibideak; 943 76 48 51.

ESKORIATZA
**> Huhezinema Film laburren jaialdia deitu du Eskoriatzako fakultateak**
Mondragon Unibertsitateko Huhezi Fakultateak Huhezinema Film laburren lehiaketa deitu du. Lehiaketan parte hartu nahi dutenek apirilaren 9a baino lehen bidali behar dituzte lanak Fikziozko lan onena eta dokumental onena sarituko dituzte. Harremanetarako idatzi helbide honetara: *huhezinema@huhezi.edu*

943 25 05 01
goienkaria@goiena.com

ARRASATE
**> Arrasate Musikalen bi emanaldi**
Bihar, martitzena, Caja Navarran, ikasleen kontzertua, 18:30ean. Eguenean Kulturaten, 18:00etan.

ARRASATE
**> Taila ikastaroa, apiriletik aurrera**
Arrasateko Tailaginen Elkarteak oinarrizko taila ikastaroa antolatu du. Argibideak: 645 70 59 13 (Felix).

BERGARA
**> Nazio Eztabaida Gunearen bilera**
Eguaztenean, martxoaren 12an, Miguel Altunan, 19:00etan.

BERGARA
**> San Joxepe elkartearen urteko batzarra**
Martxoaren 27an egingo du erretiratuen elkarteak batzarra. Lehen deialdia 16:00etan; bigarrena, 17:00etan.

ARAMAIO
**> Jaiak prestatzeko bilera eguaztenean**
Udaleko Jai batzordeak herritarrak deitu ditu martxoaren 12ko batzarrerako. Udaletxean, 19:00etan.

ANTZUOLA
**> Eski irteera Arriola taldearen eskutik**
Arriola mendizale elkarteak eski irteera antolatu du Candanchura martxoaren 29rako eta 30erako. Argibideak: 943 76 63 94 (Arkaitz).

## etxeko leihotik



**Oihane Agirre** > GOITBko programazio zuzendaria

# Bide luzea oraindik ere egiteko daukaguna

Emakumearen Nazioarteko Eguna *ospatzen* jarraitzen dugu eta jarraitu beharko dugu. Aurtengo kanpainan ardura eta erantzukizunen banaketaren beharra gogorarazi nahi izan digute. Emakumeek etxeko lanen %70 baino gehiago egiten ditugu: janaria prestatu, erosketak egin, arropa garbitu, haurrak hezi... Emakumeok lan munduan murgildu gara, baina etxeko zama gainean daramagula. Hainbat neurri hartu dira familia eta lana uztartzeko baina ez dut uste nahikoa denik. Emakumeok izan beharko gara, bakoitza bere etxetik hasita, tradizionalki emakumezkoen lanak izan direnak gizonezkoen artean konpartitu behar ditugunak. Eta gure semeen heziketan bereziki, lan handia egin beharko dugu, askotan etxean bertan ikusten duenak laguntzen ez duen arren. Ikastetxeak ere gai honetaz sentsibilizatuta daudela uste dut. Joandako astean, ilobak eskolatik taula bat ekarri zuen betetzeko; etxeko lanen zerrenda bat zekarren (oheak egin, janaria prestatu, zakarrontzia atera,...) eta lan bakoitza etxeko nork egin zuen jarri behar zuen. Samur bete zuten taula ilobak eta ahizpak!

**"Gure semeen heziketan bereziki, lan handia egin beharko dugu"**

**> Zuhaitz Eguna.** **Arizmendiko eta Kurtzebarriko ikasleak elkarrekin, hainbat zuhaitz landatu zituzten Aretxabaletan. Hurrengo, belar txarrak kentzeaz edo ureztatzeaz gogoratuko ote dira?**

**> Sorkun.** Gaztea **irratian zentsuratu egin dutela jakin dut. Rock gogorregia egiten omen du bere azken lanean, *Goiz zen*. Erregistro hau ez al da onargarria emakumezko ahots baten?**

## debagoiendarrak kanpoan

**Maialen Lopez de la Calle** > Oñati

# "Noizean behin joan arren Oñatira, badakit lagunak hor daudela"

IRATI AGIRREAZALDEGI > OÑATI

**Unibertsitatera Donostiara joan zenetik etxetik kanpo bizi izan da Maialen Lopez de la Calle oñatiarra. Ingeniaritza informatiko ikasketak egin eta beka bat eskuratuta, Orion bizi da eta Usurbilen dihardu lanean.**

**Noiz eta nolatan joan zinen Oriora bizi izatera?**
Abuztutik bizi naiz bertan. Beka bat lortu nuen Elhuyarren, Usurbilen jarduteko eta nahi nuen inguruko herriren batean bizi izatea bueltaka ibili beharrean. Zumaian, Zarautzen... bila ibili ostean, Orion aurkitu genuen etxea eta bertan geratu ginen.

**Zertan diharduzu Elhuyarren?**
Ingeniaritza informatikoa ikasi nuen eta informatikari lanetan dihardut, baina hizkuntza teknologietako beka batekin; hortaz, aplikazioak garatzen ez ezik ikerkuntzan ere badihardut.

**Ezberdintasunik sumatu duzu Oñatitik Oriora?**
Unibertsitatera 18 urterekin joan nintzen eta astea Oñatitik kanpora pasatzen nuen. Ezberdintasuna sumatu dut, baina herriarengatik baino nire bizimoduari dagokionez. Oñatin egunero lagunekin ibiltzen nintzen, kalean. Orio herri txikia izan arren oraindik apenas ezagutzen dut jenderik, hortaz, ez naiz Oñatin beste ibiltzen kalean. Donostiara ere joaten naiz eta han badauzkat lagunak. Aste barruan antzerakoak dira Oñati eta Orio, baina aste bukaeretan, gauetan, jende gehiago ibiltzen da Oñatin. Orioko jendea Zarautzera, Donostiara... joaten da. Gainontzean gazte mugimendua egon badago Orion, antolatzen dituzte gauzak.



GOIENKARIA

**Donostiara ikastera**
Informatika ikasketak egitera joan zen Maialen Donostiara. Orain, Orion bizi da oñatiarra.

**Sarritan etortzen zara Oñatira?**
Orion bizi naizenetik gutxiago. Ikasle garaian ez nintzen nire etxean bizi, beti senideren baten etxean pasatzen nuen astea eta maizago bueltatzen nintzen Oñatira. Orain, noizean behin etortzen naiz, baina lagunekin kontaktua mantentzen dut, badakit hor daudela.

**Zerbaiten falta sumatzen duzu?**
Herriko lagunak gero eta gutxiago ikusten ditut eta herriaren beraren falta ere apur bat sumatzen dut. Baina 18 urte nituenetik kanpoan bizi naizenez ohitu egin naiz Oñati distantziatik ikustera.

**Oriotik Oñatira zer ekarriko zenuke?**
Itsasoa beharbada. Kostalde zalea izan banaiz, baina neguan batik bat. Itsas bazterrean noizean behin paseatzea gustuko dut.

**Oriora bisitan doazenei zer gomendatuko zenieke?**
Oraindik ez dut ondo ezagutzen Orio; ez gara bertako errutinara ohitu. Baina, Orio inguruan egin daitezkeen ibilaldiak politak dira. Orio eta Donostia arteko ere bai.

**Inoiz pentsatu duzu Oñatira berriro itzultzea?**
Ez, momentu honetan ez dut posibilitate hori planteatzen.Gustura nago Orion; baina,egia esan, ez dut nire burua ez Oñatin ezta Orion ere ikusten.

**kale inkesta**

# Zubikoako kantxa berrian hobekuntza lanak egin behar dituzte. Zer iritzi duzu?



**Kristina Bikuña**
Langilea
Oñati

Oso gaizki iruditzen zait horrenbeste diru gastatu eta gero orain, hobekuntza lanetan hastea. Nabari da ez dutela euren dirua gastatzen, guztiena baizik. Bestela, hobeto pentsatuta eingo lukete lan.



**Gloria Martin**
Langilea
Oñati

Esan behar dut nik ez dudala ikusi nola geratu den kantxa berria; baina, esan didate ez dagoela ondo. Orain bukatu berri duten obretan hobekuntza lanak egiten hastea ez zait ondo iruditzen.



**Mikel Alberdi**
Langilea
Oñati

Hasieratik gaizki egin dituzte gauzak; planifikazio plan txarra egon da. Hala, lanak bukatutakoan arazoak etorri dira eta, nola ez, gastu gehiago. Ez zait ondo iruditzen; eta, esan bezala, planifikazioa falta da.



**Pedro Marquez**
Langilea
Oñati

Egia esan, nik ez dut aukerarik izan kantxa berria nola geratu den ikusteko. Baina, lanak gaizki egin dituztela konturatu badira, nik uste dut hobe dela arazoa konpontzea gaizki ustea baino.

**irakurlearen txokoa**

# 943 25 05 05

## goienkaria@goiena.com

DEBAGOIENA

**> Zer dira autobusak gehiegi erabiltzen ibarrean zehar?**

Arrasate eta Bergara arteko autobusa egunero erabiltzen duen emakume baten kezka: "Pesak ez ditu autobus gehiegi jartzen ibarreko linean? Askotan hutsik joaten dira eta hori ez da energia aurrezteko modua. Komeni den orduetan zerbitzua indartzearekin nahikoa litzateke".

BERGARA

**> Erakusketa aretoak ez dira alderdi politikoendako**

Herritar batek deitu digu salaketa bat egiteko. Joan den martitzenean kultura etxean dagoen erakusketa aretora joan zen, han ikusgai dagoen Diego Osuna margolariaren erakusketa ikustera. EAJko zinegotziek prentsaurrekoa ematen ziharduten. Ez zaio logikoa iruditzen, jakinda alderdiek euren bulegoak dituztela udaletxean eta EAJk Batzokian eman ditzakeela halako prentsaurrekoak.

ARRASATE

**> Arrasateko saihesbidearen egoera penagarria**

Arrasateko gidari baten e-maila jaso dugu asteon: lehen euriak hastearekin batera, saihesbidearen egoerak txarrera nabarmen egin duela salatzen du: errepidea zuloz beterik dago hainbat tokitan eta arriskua nabaria da gidarientzat. Horren aurrean, dagokionari neurriak hartzeko eskatu nahi dio, istripu larriren bat gertatu baino lehen.

**usteak uste**

**Arantzazu Ezkibel**

## Baserri auzuetako ohitturak

Fan dan astian familixako baten hiletak izan gittuen. Gizona, baserrittarra sortzez eta bihotzez. Hala, auzoko ermittan errosarixua egon zan; eta, harrittuta geratu nintzen hara hurbildu zan jende mordua ikustian. Hori bai, salbuespenak salbuespen, danak 60 urtetik gorakuak zian. Ohittura zaharrak dia horreik; gure aurrekuekin bukatuko dianak. Ez da nere asmua tarte honetan hileta kristauan aldeko mezurik zabalketia. Bakarrik gogora ekarri gura izan dot gure baserrixetan eta auzuetan oraina arte egon dan (eta dagoen) ohittura bat. Politta dala pentsaitten xat; batez be, bizilagunak zeintzuk dittugun jakin be ez dakigun garaixan.

Beste ohittura bat, garizuma garaixan itten dan karapaixua da. Zuek jaso dozue? Nik bai!

**zorroztailea**



**Juan Luis Azkarate**

# Manhattan

"Hiru tiro bota dizkiote, bularrean eta burualdean. Navas Tolosa kalean izan da atentatua, 13:30ak aldera, etxetik irteten ari zela. Isaias Carrasco da hildakoa, eta 42 urte zituen. Ez zeukan bizkartzainik"


Harian
Isaias Carrasco PSE-EEko zinegotzi ohia hil du ETAk tiroz, Arrasaten

Berria > 2008-03-07

Azken Forbes zerrenda argitaratu berri dela eta, munduko pertsona aberatsei buruzkoa izan behar zuen zutabetxo honek. Umorea eta ironia baliatu behar nituen. Baina, nolakoa den bizitza, eta nolakoa ez-bizitza. Zer balio daukan diruak, 42 urterekin zure emazte eta alabaren aurrean bost tiro botatzen badizkizute.

Nire adinekoa zen Isaias Carrasco. Sekula ez nuen berarekin berbarik egin, baina ezagutzen nuen, aspalditik. Arrasaten oso ezaguna zen, San Andresko auzo-alkate garai batean. Eta behin baino gehiagotan tokatu zait berari ticketa ordaintzea AP-1eko peajean.

Navas de Tolosa kalean hil zuten. Kalearen izenak 1212.ean gertatutako kristau eta musulmanen arteko bataila bat gogoratzen du. Batzuetan sinbolo bihurtzen da oro. Eta nolakoak diren gauzak, emaztearen lehengusuek taberna bat dute Navas de Tolosatik gertu. Bere bizitzako azken txikitoa hartu omen zuen han Carrascok.

San Andresen kaleek Galicia, Andalucia edo Cordoba y Oro bezalako izenak dituzte. Hala ere, Manhattan gaitzizenaz ezagutzen zen auzoa nire gazte denboran. Izen apur bat ironikoa 50. eta 60. hamarkadetan eraikitako langile-auzo hau izendatzeko. Extremadura edo Gaztelatik, Isaias Carrascoren familia bezala, etorritako igeltsero eta brotxa lodiko pintore askok bizi eta lan egiten du auzoan. Isaias Carrascok hautaketa politiko naturalena baino ez zuen hartu: UGT eta PSOE.

> **"Navas de Tolosan hil zuten Carrasco. Batzuetan sinbolo bihurtzen da oro"**
>
> **"San Andresen, hautaketa naturalena baino ez zuen hartu: UGT eta PSOE"**

90. hamarkadan, herriko berriemailea nintzela, harremanak izan nituen PSE-EEko hainbat zinegotzirekin. Sekula ez harreman estuak, ordea. 2.375 boto jaso zituzten Isaias Carrascorri zinegotzi izatea tokatu zitzaionean. Hauetako gutxi, ordea, Erdialdean batutakoak, nik bizitza gehien egiten dudan gunean.

Oroimen guzti hauek gogoan bueltaka eta, hilketaren berri izan eta ordu erditxo geroago, Aretxabaletako nire lantokiko leihotik lauzpabost mutil koxkor jolasean ikusi nituen. *Boikot* zioen kartel batekin eskutan zeramatela, oihuka eta keinuka ari ziren kalean gora kalean behera, manifestazio baten pantomima egiten. Umeen jokoak errealitatea imitatzen ohi du.

Hiru urte beteko ditu nire alabak aurten. Isaias Carrascoren hirugarren semeak, Adeik, bost.

ASTELEHENEKO Goienkaria

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Edu Mendibil **Erredakzioa** Aitziber Aranburuzabala, Arantzazu Ezkibel, Miren Arregi **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Alex Azkarate **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria




**> ARRASATE**
Bilgune Feministaren talde bat sortu guran dabiltza **> 12**





**> BERGARA**
AHTren gaineko ekitaldiak egingo dituzte astean zehar **> 13**





**> OÑATI**
Zubikoa Kiroldegiko kantxa urdina itxita dago gaurtik **> 14**





**> ARETXABALETA**
Txakurren gaineko ordenantza betearazten hasiko dira **> 15**


**ZERBITZUAK** > KOMUN PUBLIKOAK

# Komun publiko gehiago egingo dituzte Bergaran, Arrasaten eta Oñatin

**SALBUESPENAK**
Aramaion eta Elgetan ez dituzte inoiz izan, eta eskaerarik ere ez dute izan

**ORDUTEGIA**
Ia egunero daude zabalik ibarreko komun publikoak eta askok ordutegia dute




**PLAZAN** Oñatiko plazako kioskoan zeuden lehen komunak; berriak, Ertzaintzaren komisaldegia izandako eraikinean jarri dituzte, plazan bertan. O.E.

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA

Debagoieneko herri gehienetan dituzte komun publikoak. Aramaio eta Elgeta dira salbuespenak. Oñatin, berriz, plazan ez ezik, Arantzazun ere badituzte eta kalean gehiago egiteko asmoa ere badute. Arrasaten eta Bergaran ere gehiago jarriko dituzte .

Hain zuzen, Arrasate da komun publiko gehien dituen herria: Seber Altube plazan, Garibai etorbidean, Monterronen, Iturripen eta merkatuan. Bergaran, Usondo parkean eta autobus geltokian daude komun publikoak, udaletxekoez gain eta Aretxabaletan Otalora kalean dituzte. Gatzagako komun publiko bakarra Arrate jatetxearen azpialdean dago. Antzuolan, udaletxeko komunak dira zerbitzu publikoa dutenak eta Eskoriatzan, erretiratuen elkarteko tabernakoak.

**AUTOGARBIKETA**

Ibarrean jarri dituzten komun publiko berriak gutxituendako egokituta daude eta autogarbiketa sistema dute. Horixe dute, adibidez, Arrasateko Seber Altuben eta Garibain eta Oñatiko plazan daudenak. Hala ere, garbitzaileak ere joaten dira. Herri gehienetan Udalak kontratatutako garbiketa enpresako langileak arduratzen dira garbi mantentzeaz eta xaboia eta papera jartzeaz. Aretxabaletako Udalak, adibidez, 5.500 euroko aurrekontua du Otalora kaleko komunak garbi mantentzeko. "Uraren iturria edo komun-ontzia konpontzearen kostua, adibidez, aparte izango litzateke", dio Jose Mari Segoviak, Aretxabaletako Udaleko hirigintza teknikariak. Arrasaten, 15.900 euro dituzte. "Eskoriatzan, erretiratuen tabernа hartzen dutenak arduratu behar dira komuna garbi mantentzeaz", azaldu du Dorleta Lezetak, obretako zinegotziak.

**ORDUTEGIA**

Egunez, egunero daude zabalik ibarreko komun publikoak, Antzuolakoak ezik. Udaletxean daudenez, itxita daude udaletxea ere itxita dagoen egunetan. Ordutegiari buruz, berriz, gauez itxita egoten dira gehienak. Erabiltzaileei begira, komun publikoak jende dezentek erabiltzen dituztela diote herri gehienetako udal ordezkariek. Gehienek, gainera, erabiltzaileek modu egokian, txukun, erabiltzen dituztela aitortu dute. Arrasaten, hala ere, beti ez da horrela gertatu eta neurriak hartu dituzte. "Seberon eta Garibain dauden komunetan, adibidez, ez dago paperik. Hasieran jarri genuen, baina jendeak tira egiten zion paper-bilduari eta paper dena komun-ontzira botatzen zuten. Azkenean erabaki genuen bi komun horietan paperik ez jartzea", aitortzen du Amaia Aranak, Arrasateko zerbitzuetako udal teknikariak.

**PROIEKTU BERRIAK**

Oñatin, plazan eta Arantzazun dituzte komun publikoak baina gehiago jartzeko asmoa ere badute. "Postetxearen inguruan jarri nahi ditugu, kanpotik autobusez datozten bisitariendako batik bat", dio Jose Mari Igartuak, Oñatiko obra eta zerbitzuetako batzordeburuak. Arrasaten ere pasealeku baten jartzeko proiektua dute. "Oraindik erabaki gabe dago Musakola aldera, Garagartzara edo Aretxabaleta aldera doan pasealekuan jarriko duten, baina asmoa badute", dio Amaia Aranak. Bergaran ere berriak egingo dituzte Domingo Irala kale berrituan. "Uztaila bukaerarako amaituko ditugu kale horretako lanak eta komunak ere, beraz, udararako egongo dira gertu", dio Agurne Barruso alkateak.

DATUA

**3**

**PROIEKTU BERRI**

Bergaran, Domingo Irala kale berrituan egingo dituzte komun publiko berriak, Oñatin postetxe ondoan egin gura dituzte eta Arrasaten, erabakitzeko duten herriko pasealeku baten.

GIZARTEA > BERDINTASUNA

# Bilgune Feministaren talde bat Arrasaten sortu guran dabiltza

Udalerriko mugimendu feminista dinamizatzea da talde horren helburua

Bloga sortu dute dagoeneko, harremanak eta beste bideratzeko

UBANE MADERA > ARRASATE

Bilgune Feministako hainbat kide Arrasaten talde bat sortzeko asmoa lantzen dabiltza. Hain justu ere, emakume eta gizonezkoen berdintasunaren aldeko talde hori sortzeko eta taldearen jarduna dinamizatzeko formazioa egiten ibili dira azken hilabeteotan.

Zapatuan ziren Emakumeen Azokan postua jarrita, talde moduan plazaratzekoak baina azoka bertan behera geratu zelaeta, ez zen horrela izan.



IAZKO AZOKA Zapatuan bertan behera geratu zen azokan ziren Bilgune Feministakoak herriko taldea aurkeztekoak. GOIENKARIA

**LEKUKOA HARTU GURAN**

Iraitz Agirre Bilgune Feministako kide arrasatearra dabil, besteak beste, ekimen horretan lanean. Berak azaldu digu Arrasateko mugimendu femimista indartzeko sortu dutela taldea Arrasaten: "Ikusten genuen mugimendu feminista Arrasaten oso indartsua izan dela urte piloan, baina azkeneko urteetan, berriz, oso-oso ahul dabil eta ikusi dugu gaiak lantzeko talderik ez zegoela. Sentsibilitate hori daukagun koadrilatxoa elkartu eta aurreko talde horren testigua hartzea da asmoa".

**FEMINISMOA ARDATZ**

Iraitz Agirrek aditzera eman du lekuko hori hartuko dutela, jakina, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunaren alde jarduteko helburuarekin. "Berdintasunaren diskurtsoa edo feminismoarena apurtxo bat baztertuta edo estigmatizatuta geratu dela uste dugu eta pentsatu genuen horri buelta eman behar zaiola; hori bai, poliki-poliki eta pausoz pauso. Dinamizatzeko beharra dagoela ikusita, gure helburua da horixe: dinamizatzea, gure diskurtsoa kaleratzea".

**HARREMANETARAKO BLOGA**

Teknologia berriak erabili dituzte, besteak beste, Arrasaten sortu nahi duten egitasmoaren berri emateko. "Taldean gutxi gara eta horregatik sarritan baliabide oso justuak ditugula konturatu gara; besteak beste, gurekin bat egiteko interesa izan dezakeen jendearengana heltzeko bitartekoak falta zaizkigula uste dugu. Horregatik erabaki genuen bloga sortzea: batetik, gure aldarrikapenak eta mezuak helarazteko baina, bestetik, eta bereziki, interesa izan dezakeen jende horri informazioa helarazteko", azaldu du Bilgune Feministako kideak. Hark gaineratu du dagoeneko erabilgarri dagoela blog hori. Beraz, edozein informazio jakin gura izanez gero, edo harremanetan jarri gura izanez gero, *www.goiena.net* da bideetako bat.

**ABORTUA**

Pasa berri den Martxoaren 8rako Arrasateko Emakume Kontseiluak aukeratutako aldarrikapenarekin, hau da, emakumeen parte hartzea indartu eta baloratu beharra dioenarekin bat datozela azpimarratu du Iraitz Agirrek.

Dena den, horrekin batera, Agirrek jakinarazi du eurak bestelako gaia ere landu nahi izan dutela, hau da, abortuaren aldeko jarrera: "Mugimendu feministak abortuaren inguruan bideratu dugu deialdia eta gai hori Martxoaren 8an presente egoteko, azokan eskuorriak banatzeko asmoa genuen. Jendeari abortuaren inguruan dagoen diskurtso edo hipokresiaren gainean hausnartzeko eskatu nahi genioke. Gainera, ikusita aurten Espainiar estatuan egon diren arazo guztiak… Azkenean, gauza asko normaltzat onartzen eta ulertzen ditugu; mugimendu feministen ustetan, ez da batere normala gaur egun bizi dugun egoera eta hori da gizarteratu nahi dugun hausnarketa".

## Zirkoa iritsi da Arrasateko Udal Euskaltegira



U.M.

Kolorez eta irribarrez bete zituzten Udal Euskaltegiko hainbat ikaslek euskaltegiko kanpo inguruak joan den eguenean, azken asteotan buru-belarri prestatzen ibili eta gero, guraso eta ikaskideen aurrean zirkoa irudikatu zuten-eta. Malabarak, akrobaziak eta beste egin zituzten. Bigarren urtez Udal Euskaltegian ikasten dabiltzan ume etorkinek irudikatu zuten zirkoa; Maroko, Portugal eta Hondurasko neska mutikoak ibili ziren, besteak beste.

OSASUNA > ABORTUA

## Abortuaren aldeko eskaera egin dute

EB-Zutik koalizioak aurkeztu du, amatasunaren gainean emakumeen eskubideen defentsan

U.M.> ARRASATE

Abortuaren despenalizazioaren aldeko proposamena aurkeztu du Ezker Batua-Zutik koalizioak Arrasateko Udalean. Martxoaren 8aren bueltan egindako proposamena izan da, "abortuaren gainean eskumako alderdiek eta elizak izandako kritiken ostean"; halaxe eman du aditzera Julia Mongek, koalizioko ordezkariak. Izan ere, zinegotzi ezkertiarraren ustez, "honek agerian uzten du abortugintza inolako segurtasun juridikorik gabe geratzen dela emakumeen eskubide sexualak eta ugalketa, eskubideak ez direlako bermatzen". Eta datu batzuk eman ditu esandakoa indartzeko: "Euskadin erregistratutako abortuen %92 ospitale eta klinika pribatuetan" egin direla.

Gaineratu du "emakumeek euren amatasunari buruz erabakitzeko daukaten eskubidea defendatu eta abortua despenalizatzeko Kode Penalaren aldaketa aldarrikatu" nahi dutela.



ANGIOZAR Bailara hori zeharkatuko duen arren, inongo zehaztasunik ez dagoela diote AHTren kontrako taldeko kideek. ARTXIBOA

**AZPIEGITURAK** > ABIADURA HANDIKO TRENA

# AHT: ekitaldi ugari asteon proiektuaz informatzeko

Bergarako AHTren kontrako taldeak eta Udalak antolatu dituzte, eguaztenetik domekara arte

MONIKA BELASTEGI > BERGARA
Bergarako AHTren kontrako taldeak "AHTren gainean informatzeko eta proiektuaren bultzatzaileek darabilten ezkutukeria salatzeko" ekitaldi sorta antolatu du eguaztenean hasi eta domekara bitartean, taldeko kideek azaldu duten moduan. *Salgai ez dauden lurrak ezin dira erosi* lelopean antolatu dituzte ekitaldiok eta leloa aukeratzean "desjabetzeak eta horiek gauzatzeko erabiltzen den bortizkeria" izan dituzte kontuan, batik bat.

Taldeko kideen esanetan, proiektuaren gainean dagoen informazio falta handia da eta "informazioa ezkutatzen" dihardutela azpimarratu dute. Horren adibide da, esaterako, "azpiegitura horrek Bergaran izango duen trazatuaren gaineko informazio hutsala".

**EKITALDI UGARI**
Bergarako AHTren kontrako taldeak antolatutako ekitaldiak hasiko dira eguaztenean, hilaren 12an, Itoitzeko solidarioek egingo duten *Hitzetik ekintzetara* delako hitzaldiarekin. 18:00etan izango da, gaztetxean. Egubakoitzean, berriz, hilak 14, kontzertua izango da 22:00etan, gaztetxean, Bartzelonako bi talderen eskutik: Afganistan ye-yes eta Habitacion 101. Sarrerak 3 euro balioko ditu eta jasoko duten dirua izango da Bergarako AHTren kontrako taldearen ekimenak finantzatzen laguntzeko.

Zapatuan, hilaren 15a, informazio mahaia jarriko dute kalean, Erramu Zapatuko Feria dela aprobetxatuta. "Erramu Zapatuak duen baserri giroa kontuan izanda, AHTk nekazaritzan izango duen eraginaren berri emateko aukera ona ikusi dugu. Hala, informazio panelak jarriko ditugu azpiegitura horrek Euskal Herrian duen eraginaz informatzeko. Azpiegituraren bultzatzaileek oso informazio gutxi eman dute gaiaren gainean, eta gure asmoa da, dagoen informazio apurra herritarren mesedetara jartzea, gaia sozializatzea, azken batean, eta horrekin batera, guztion arazoa dela jabearaztea", azaldu dute taldeko kideek. Eta gehitu dute: "Trazatuak hartzen dituen gureko hainbat lurretan mugimendua sumatzen hasi gara; Bizkaian eta Araban hasi dira lanak, dagoeneko, eta Gipuzkoan ere gainean ditugu", azpimarratu dute Bergarako AHTren kontrako kideek.

Erramu Zapaturako ekitaldi gehiago ere antolatu ditu Bergarako AHTren kontrako taldeak; hain justu, 12:00etan, hileta elizkizun batekin lotura izango duen parodia egingo dute herrian barrena eta 14:30ean, berriz, baba-jan begetarianoa izango da, gaztetxean. 5 euro balio du izenemateak eta 30 bat lagunendako lekua izango da. Iaz ere halako bazkaria egin zuten eta izandako arrakasta ikusita aurten ere egitea erabaki dute.

Azkenik, domekan, hilak 16, zine emanaldia egongo da 18:00etan, gaztetxean. *Mad Max* filma emango dute aurrerapen bortitz eta neurrigabeak ekar dezakeen galera izugarria irudikatzeko asmoz.

**MAHAI INGURUA**
Udalak ere AHTren gaineko ekitaldi bat antolatu du aste honetarako. Hain justu, eguenean, hilak 13, mahai ingurua egongo da 19:00etan, osoko bilkuren aretoan. Mahai inguru horretan azpiegituraren aldeko eta kontrako jarrerak entzuteko aukera egongo da. Aldeko jarrera Herrilan eta Garraio Saileko eta EHUko ordezkari banak emango dute. Kontrakoa, berriz, AHT Gelditu! Elkarlana taldeko bi kidek emango dute.

## Egunez eguneko ekitaldiak

**12, eguaztena**
18:00 *Hitzetik ekintzetara* hitzaldia, Itoitzeko solidarioen eskutik, gaztetxean.

**13, eguena**
19:00 AHTren gaineko mahai ingurua, osoko bilkuren aretoan.

**14, egubakoitza**
22:00 Afganistan ye-yes eta Habitacion 101 taldeen kontzertua, gaztetxean.

**15, zapatua**
Goizean barrena, informazio mahaia jarriko dute.
12:00 Parodia, herriko kaleetan.
14:30 Baba-jan begetarianoa, gaztetxean.

**16, domeka**
18:00 Film emanaldia, gaztetxean: *Mad Max* filma.

> TURISMOA

### Gaur, astelehena, zabalduko ditu ateak Turismo Bulegoak Aste Santuko oporraldira begira

Gaurtik apirilaren 6ra arte egongo da zabalik, Aste Santura begira. Lanegunetan, eta hilaren 19an, 20an eta 21ean goiz eta arratsalde egongo da zabalik, 10:30-14:00 eta 16:30-19:30 ordutegian. Domeka eta jai egunetan, berriz, 11:30-14:30 ordutegia izango du. Hilaren 30ean, domeka, itxita egongo da.

> IKASTAROA

### Eztia dastatzeko doako ikastaroa antolatu du Udalak eta zabalik dago izena emateko epea

Udalak eztia dastatzeko doako ikastaroa antolatu du. Martxoaren 11n izango da, 19:00etan, eta bi ordu iraungo du. Bestalde, hizlaria izango da Gipuzkoako Erlezainen elkarteko kide Julian Urkiola. Saioak bi atal izango ditu: teorikoa eta praktikoa. Izena emateko deitu kultura etxera, 943 77 91 59 telefono zenbakira.

> HERRI BAZKARIA

### Erramu Zapatuko herri bazkarirako txartelak salgai daude herriko hainbat tabernatan

Kortazar, Avenida eta Pol-Pol tabernetan daude salgai, 15 eurotan. Eguraldi ona egiten badu Bideberrin izango da bazkaria eta euria egiten badu, Seminarioko jolasleku estalian, 14:30ean. Bazkaltzeko plater nagusia izango da bildotsa burduntzian eta trikitilariek alaituta egongo da. Arratsaldean, txaranga ere egongo da.

> ZERGAK

### Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko epea zabalik dago

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren errolda onartu du Udalak, otsailaren 20an onartu zuen, eta martxoaren 27ra arteko epea dago kontrako errekurtsoak aurkezteko. Ordaintzeko epea, berriz, martxoaren 3an hasi eta maiatzaren 31n bukatuko da. Egun horretatik aurrera errekargoarekin kobratuko dute zerga.

> GAZTEEN TOPAKETAK

### Izenematea zabalik Kultura sailak antolatutako 12 eta 16 urte arteko gazteendako topaketetan

Apirileko egubakoitzetan izango dira topaketok eta egongo dira askotariko ekintzak. Interesatuek izena eman beharko dute, taldeka –gehienez sei lagun taldeko–. eta nork bere ikastetxera jo dezake horretarako. Izenematea zabalik egongo da eguenera, martxoaren 13ra, bitartean. Topaketok Udaleko Kultura Sailak antolatu ditu, Jardunen eta kale hezitzaileen laguntzarekin, besteak beste.

> TRAFIKOA

### Erramu Zapatuko feriak aldaketak eragingo ditu aparkatzeko orduan eta baita trafikoari ere

Zapatuan, hilak 15, egingo den Erramu Zapatuko feriak aldaketak eragingo ditu trafikoan eta aparkalekuan: egubakoitzean, hilak 14, hutsik laga beharko dira autoz Fraiskozuri eta Ibargarai kalea, Miguel Altunaraino. Zapatuan, berriz, Ibargarai kalea hutsik egon beharko da 06:00etarako, Miguel Altunatik Seminarioko jolaslekuraino. Bestalde, Fraiskozuri eta Ibargarai itxita egongo dira eta trafikoak joan beharko du Irizar, Zurradero eta Matxiategitik. Erdialdean aparkaleku asko kenduko dituztenez, Martinez de Iralako jolaslekua egokituko dute egubakoitzean 17:00etatik aurrera.

> EUSKARA

### Joxerra Gartziaren hitzaldia eta planetak ikusteko teleskopioak Aranzadiren eskutik

Aranzadi Ikastolak antolatutako hitzaldia eguenean, hilaren 13an izango da. *Zer arraio, Kristo, demontre... egin behar dugu euskararekin?* gaiaz jardungo du Joxerra Gartziak Aroztegi aretoan, 18:30ean. Bestalde, egubakoitzean, hilak 14, Ilargia, Saturno eta Marte ikusteko teleskopioak jarriko dituzte Seminarioko jolaslekuan, 19:30ean, Ilatargi astronomia taldearekin elkarlanean.

**UDALA** > OSOKO BILKURA

# Gizarte arloan lan egiten duten elkarteen artean 12.900 euroko laguntza banatuko du Udalak

Abuztuan aurkeztu zuen eta oraindik ez dute erantzunik jaso; asteon egindako ohiko osoko bilkuran berretsi egin dute alegazioa

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Pasa den asteko osoko bilkuran onartu zuen Udalak gizarte arloan lan egiten duten elkarteen artean banatzeko diru-laguntza; hain zuzen, 12.900 euro banatuko ditu. Gaia, aho batez onartu ondoren, dagokion deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, eskaerak aurkezteko epea zabaldu dadin. Interesa duten erakundeek 30 eguneko epea izango dute eskaera udal bulegoetan egiteko.

Dena dela, eskaera egin aurretik, informazio gehiago nahi izanez gero, Bidebarrieta kaleko Gizarte Zerbitzuetako 943 03 77 00 telefonora dei daiteke.

**BALDINTZA BAKARRA**

Gizarte arloko elkarteen artean Udalak banatuko duen diru-laguntza eskuratu ahal izateko baldintza bakarra bete behar da, hain zuen, Oñatin nahiz bailaran lan egiten duten irabazi asmorik gabeko erakundeak direla egiaztatu beharko dute.

Era berean, Gipuzkoa mailan lan egiten duten erakundeek eskaerak egin ditzakete, baina, Oñatitik jasotzen dituzten laguntza eskaerei behar bezala erantzuten dietela egiaztatu beharko dute.

DATUA

**15**

**ELKARTE**

2007. urtean, gizarte arloan lan egiten duten 15 erakunderen artean banatu zuen Udalak urteko diru-laguntza. Deialdira ibarreko eta Gipuzkoako 17 erakunde aurkeztu ziren.

**BI JARDUERA MOTA**

Oñatiko Udaleko Gizarte Zerbitzuen sailak bi jarduera mota babestu gura ditu laguntza hauen bidez: alde batetik, herrian garatzen diren ekintza zehatzak: besteak beste, hitzaldiak, zabalkundeko kanpainak, formazio ikastaroak eta aisialdi programak; eta, beste alde batetik, erakundearen mantentze gastuak.

**DUELA LAU URTETIK**

Gizarte arloan diharduten elkarteen artean diru-laguntzak banatzeko erabakia 2004ko abenduaren 22an hartu zuen Udalak. Gizarte Zerbitzuetara aldika iristen diren laguntza eskaerei erantzun objektibo bat ematea zen helburua nagusia. Hartarako, arautegia osatu zuten. Arautegian zehaztutako irizpideak eta erakunde bakoitzak duen lehentasunak hartzen dira kontutan diru-laguntza banatzerako orduan.

2007. urtean 17 erakunderen eskaerak jaso zituzten Gizarte Zerbitzuetan. Baina, 15 elkarteri bakarrik eman zitzaien diru-laguntza.



**ARINAK** Pesako linea arinak herriko hiru geltokietan geratuko dira. GOIENKARIA

**ZERBITZUAK** > PESA

# Autobusak Olabarrietan eta San Prudentzion geratuko dira, erabiltzaileek eskatuta

Oñati, Bergara eta Zumarraga arteko bidea egiten duen autobusa Zubillagan geratzen da zerbitzu guztietan

**M.B.** > OÑATI

Martxoaren 1ean sartu zen indarrean Pesak eskaintzen duen zerbitzuaren azkeneko berrikuntza: linea zirkularreko autobusa, Olabarrieta eta San Prudentzion (Elorregi) geratuko da. Dena dela, autobusak ez dira ordu guztietan geratuko, autobusean doazen erabiltzaileek eskatzen dutenean edo autobus geltokian norbait dagoenean bakarrik.

**ZUBILLAGAN ERE BAI**

Bestalde, urtarrilean hasita, Pesa konpainiak eskaintzen dituen zerbitzuetan bi aldaketa eman ziren.

Alde batetik, Oñati, Bergara eta Zumarraga arteko ibilbidea egiten duen linea zirkularrak Zubillaga auzoan geldialdia egiten du zerbitzu guztietan. Eta, beste alde batetik, Arrasate eta Oñati artean bi zerbitzu berri daude, hain zuzen, 07:30eko eta 08:30ekoa. Gainera, herrian dauden hiru geltokietan geratuko dira: Olara auzoan, Euskadi Etorbidean eta postetxe atzealdean.

Era berean, Oñati-Arrasate eta Arrasate-Oñati bidea egiten duten linea arinak ezabatu egin dira, eta, guztiak, Zubillagan geratuko dira.



**ZUBILLAGA** Argazkiko telefono-kabina ez dute kenduko. MIREIA BIKUÑA

**ZERBITZUAK** > TELEFONICA

# Herriko bi telefono-kabina kentzeko eskaera ez da onartu

Udalak atzera bota du Zubillagakoa eta Arantzazukoa eteteko eskaera

**M.B.** > OÑATI

Telefonica Enpresak egindako eskaera ez du onartu Udalak. Erabilera publikoko telefonia zerbitzua ematen duen enpresak, Zubillaga eta Arantzazu auzoetan dauden telefono-kabinak kentzeko eskaera egin zuen, "merkatuan dauden aukerek eraginda, telefono-kabinen erabilera asko jaitsi" dela argudiatuz. Gainera, Telefonica enpresaren eskaerak dio "zerbitzu bera eman daitekeela, telefono-kabina gutxiagorekin".

**UDALAK EZ DU ONARTU**

Udalak eskaera bertan behera utzi du," Zubillaga eta Arantzazu auzoak herri gunetik, hurrenez hurren, hiru eta bederatzi kilometrotara daudela" esanez. Udalak "beharrezkoa" ikusten du telefono-kabinak mantentzea.

> SOLASALDIA

### Gurasoen eta irakasleen arteko foroa, Elkar Hezin

Elkar Hezi ikastetxeko gurasoen elkarteko antolatutako foroa egingo dute eguaztenean, Santa Marinako eraikineko E gelan, 18:30ean.

SIEP (Sendia, irakasleria, elkar partekatuz) egitasmoaren barruan, Elkar Hezi ikastetxeko guraso eta irakasleak hilean behin biltzen dira gai ezberdinei buruz jarduteko. Eguazteneko bileran *Gizarte komunikabideak, zertarako bideak?* gaiari buruz berba egingo dute.

> TAXI TARIFAK

### Kilometro bakoitza bi zentimo garestiagoa da 2008an

Udalak, herriko taxi gidariek 2008rako proposatutako taxi tarifak onartu zituen otsaileko osoko bilkuran.

Hortaz, banda jaitsiera zazpi zentimo igo da; 2,90 eurotik 2,97ra. Gauean egindako kilometro bakoitzak, berriz, 1,48 euro balioko du, joan den urtean baino hiru zentimo gehiago. Bestalde, itxoindako ordu bakoitzeko 17,78 euro ordaindu dugu, eta, gaueko bidaiengatik, 37,95 euro.

**LANAK** > HARMAILETAN

# Kiroldegiko kantxa urdina itxita dago gaurtik aurrera

Markagailuaren pareko harmaila 1,10 zentimetrotik 70era jaitsiko dute

**M.B.** > OÑATI

Kiroldegiko kantxa urdineko harmailetan antzeman den akatsa zuzentzeko, gaurtik aurrera, erabiltzaileondako itxita egongo da. Lanok "eragin zuzena" izango dute martxoaren 18ra arte, eskolatik kiroldegira doazen ikasleengan, eta Aloña Mendi elkarteko taldeek egiten dituzten entrenamenduetan. Lanak apirileko lehen asterako bukatu gura dituzte.

Egubakoitzera arte harmailako hormaren altuera jaisteko lanak egingo dituzte. Helburua, markagailuaren pareko harmailaren altuera 1,10 zentrimetrotatik 70era jaistea da, eta ondoren baranda ipiniko dute. Lanok egiteko 20.000 euroko aurrekontua bideratu du Udalak.

**IGERILEKUA ITXITA**

Bestalde, Osakidetzak agintzen duen garbiketa egiteko, igerilekua itxita egongo da martxoaren 14tik 25era. Gainera, itxiera aprobetxatuko dute lehen go sarrera zegoen tokian komuna egiteko.

Aste Santuko oporrak tarteko kiroldegiak ordutegi berezia edukiko du martxoaren 19tik 24ra; hain zuzen, itxita egongo da, martxoaren 20an, 21ean eta 24an. Gainontzeko egunetan ohiko ordutegiarekin zabalduko dute.

**ARETXABALETA** > ANIMALIEN UDAL ORDENANTZA

# Txakurren gaineko ordenantza betearazten hasiko dira udaltzainak datozen asteotan

Isunak jarriko dizkiete kakak jasotzen ez dituzten jabeei eta lotu barik daramatzatenei

Txakurren kakak jasotzeko poltsatxoak dituzte udaletxean azken urteotan



**TXAKURRAK** Kalean eta loraterietan kaka egiten dutenean jasotzeko betebeharra daukate jabeek. JOSETXO ARANTZABAL

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Txakurren gainean Udal ordenantzak dioena betearazten hasiko dira udaltzainak datozen asteotan. Aurreko agintaldian onartu zuen Udalak ordenantza, baina oraindik ez dute jarraipen zorrotzik egiten. Laster, isunak jasoko dituzte txakurren kakak lorategi edo espaloi bazterretan uzten dituztenek eta txakurra lotu barik daramatenek.

**POLTSATXOAK UDALETXEAN**

Ordenantzak zehazten du zein betebehar dituzten animalien jabeek. Hala, txakurrek identifikatuta egon behar dute, hau da, lepoan mikrotxipa jarrita. Baita udaletxean erroldatuta ere. Horrez gain, kalean eta lorategietan egiten dutenean kaka jasotzeko betebeharra daukate jabeek. Udalak plastikozko poltsatxoak ditu herritarren eskura, eta erabili gura dituztenek harreran eskatu besterik ez dute.

Gainera, arriskutsutzat jotako arrazaren batekoa bada txakurra, Udalaren administrazio baimena behar du jabeak eta arriskutsutzat sailkatua izan dela dioen txartela. Hona arriskutsutzat jotako arrazak: pit bull terrier, staffordshire bull terrier, rottweiler, argentinako dogoa, fila brasileiro, tosa inu, akita inu eta staffordshire terrier amerikarra.

**ISUNAK 21.565 EURO ARTEKOAK**

Orain ere jartzen dituzte isunak udaltzainek, txakurren bat galduta aurkitu badute, esaterako. Hemendik aurrera zorrotzagoak izango dira. Arau-hauste arina eginez gero, –kakak ez jasotzea– 43 eta 431 euro arteko isuna jarriko dute; larria bada, 431 eta 2.156 euro artekoa; eta arauhaustea oso larria bada, 2.156 eta 21.565 euro artekoa.

> POLITIKA

### PSE-EEk epaileen independentzia babesten du

Aretxabaletako PSE-EE alderdiak adierazi du Aralar, EA, EAJ eta Ezker Batua-Berdeak mozioa onartu zutela EAE-ANV eta EHAK-ren alde "talde horiek pozik uzteko, talde sozialistari errua egotziz". Alderdien Legeak ideiei ez diela jazarpenik egiten diote, bai, ostera, delituei, eta "politika erabilita biolentzia defendatzen dutenek ez dutela lekurik". Beti defendatu dutela elkarrizketa demokratikoa gaineratu dute, eta "bakea lortzeko ETAk armak utzi behar dituela". Epaileek egiten duten lanari elkartasuna adierazi diote, eta jazarpena salatu.

> HEZKUNTZA

### Haur eskolaren araudiaren aldaketa onartu du Udalak

Haur eskolaren araudian hainbat aldaketa egitea proposatu zuen Aretxabaletako Udalak, eta otsailaren 25ean egin zuten osoko bilkuran aho batez onartu zituzten guztiak.

Hainbat herritarrek alegazio bi aurkeztu zizkioten aldaketoi: guraso biak erroldatuta egon beharrean bakarra egotea; eta matrikulatzeko momentuan egotea erroldatuta herrian eta ez sei hilabete lehenago. Biei ezetza eman zieten udalbatzako kideek. Hala, aurtengo matrikulatze epea zabaltzen dutenerako –apirilean– indarrean egongo da aldatutako araudia.

**HIRIGINTZA** > MARKESINAK JARTZEKO LANAK

# Aranburuzabala kaleko markesinak aste honetan bertan jartzea gura du Udalak

Mugikortasun arauak tarteko, azken egunetan espaloiko maila kentzen ibili dira

Bi markesina jarriko dituzte; Frantziatik ekarri dituzte eta egur bereziaz eginak daude



**MARKESINA** Aranburuzabala kalean jarri duten markesinetako bat. J. ARANTZABAL

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ESKORIATZA

Eskoriatzako udalaren asmoa aste honetan bertan Aranburuzabala kaleko bi markesinak jartzea da. "Eguraldiak laguntzen badu, aste honetan bertan jarriko dituzte", azaldu du Dorleta Lezeta Eskoriatzako udaleko zinegotziak.

Bi markesina jartzea da udalaren asmoa; dagoeneko, markesinak Eskoriatzan daude, baina, muntatu eta bere tokian jartzea da falta dena. "Lanak luzatu dira markesinak ez zirelako heltzen", azaldu du Lezetak.

**DIPUTAZIOAREN ESKAERA**

Diputazioaren nahia Gipuzkoa osoan modelo bereko markesinak jartzea da; horretako, diru laguntzak emango ditu Diputazioak. Baina, Eskoriatzako udalak ez du nahi hori beteko: "handiegiak eta garestiak iruditu zaizkigu". Hala, Frantziatik ekarri dituzte markesinak. "6000 euroko aurrekontua izan dugu bi markesinak erosteko", esan du Ezpeletak. Aranburuzabala kaleko lanetan, Amaral enpresa dabil. "Santa Ana auzoko lanetan izan zuten atzerapena dela eta, ordainetan, Aranburuzabala kaleko lanak egingo ditu Amaralek", esan du Lezeta zinegotziak. Espero dute astean jarriko dituztela.

**HITZALDIAK**

## Bihar kafe tertulia Ibarraundi museoan

**A.E.** > ESKORIATZA

Emakumearen nazioarteko eguna pasa dela ospatzeko, kafe tertulia antolatu du Eskoriatzako udalak biharko, martitzenerako. *Gizonak eta emakumeak aldatzeko elkarren beharra ote dugu?* izeneko tertulia egingo dute eta Ana Larrieta psikologoa izango da hizlaria. Ibarraundin izango da, arratsaldeko 6:30etan.

**ETZI, KULTURA ETXEAN**

Eguaztenean, berriz, Mari Jose Pagaldaik *Gure gorputzaren magia: ormona sistema* hitzaldi emango du. Hau, kultura etxean izango da, arratsaldeko 6:30etan. Udalak hilero antolatzen duen hitzaldien barruan sartzen da azken hau.




**SENTSIBILIZAZIOA** Elgetan 60 bat lagunek jaso zuten Energiaren Euskal Erakundeak banatutako informazioa. GOIENKARIA

**ELGETA** > ENERGIA

# Modu ekonomikoan gidatzeko ikastaroa laster

## Energia aurrezteko bonbillak eta informazioa banatu ditu Energiaren Euskal Erakundeak

**M.A/L.Z.** > ELGETA

Eguenean 60 bat lagun hurbildu ziren Energiaren Euskal Erakundeak (E.E.E) energia eraginkortasunari buruzko programaren barruan Elgetara bidalitako ordezkariarengana.

Banaketa 11:00etatik 12:00etara egin zuen. Nortasun Agiriaren zenbakia emanez gero informazio liburuxka eta kontsumo gutxiko bonbilla bana banatu zituen.

Udalaren esanetan ekintza arrakastatsua izan da. "Programa horren barruan automobila modu ekonomikoan gidatzeko ikastaroa egitea proposatu digute", adierazi du Oxel Erostarbe alkateak. "Gutxieneko parte hartzaile kopurua eskatzen dute. Lortuz gero Elgetan egiteko aukera izango dugu".

Real Automovil Club erakundeak ematen ditu eskola horiek. Aste bukaeratan egiten dituzte eta, gutxienez, 15 laguneko taldea eskatzen dute.

**AURREZTEKO GOMENDIOAK**

Herritarrek eguenean jasotako kontsumo txikiko bonbillak garestiak dira beste bonbillekin alderatuta. Iraupen handikoak dira, ordea eta argi berdina emateko kontsumoa %80 txikiagoa da. "Bonbillak denbora apur bat behar dute berotzeko eta lehenengo uneetan argi gutxi ematen dute. Komenigarria da luzaro piztuta edukitzen ditugun lanparetan jartzea", azaldu du E.E.E-ko ordezkariak. Gaineratu zuen bonbilla horiek zirkuitu elektroniko txikia dutela. Horregatik, komenigarria dela garbigunera eramatea.

Banatutako informazio liburuxkan, berriz, etxebizitza erosterakoan edo ekipamendua egokitzerakoan kontuan hartu beharreko gomendioak jasotzen dira. Jarduteko bide egokienak deskribatzeaz gain, naturak eskaintzen dizkigun baliabideak behar bezala erabiltzeari begira, energia kontsumitzeko jarraibide errazak bezain erabilgarriak azaltzen dira.

**LEINTZ GATZAGA** > ERRETIRATUAK

# Batzar orokorra egingo du Toki Eder erretiratuen elkarteak zapatuan, 17:00etan

## Iazko diru kontuak aurkeztuko dituzte, eta aurtengo ekintzen berri emango dute; bukatutakoan merienda egongo da

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Toki Eder erretiratuen elkarteak batzar orokorra egingo du zapatuan, hilak 15, 17:00etan. Garro jauregian duten egoitzan da, eta ostean mokadutxoa eskainiko dute.

Zuzendaritza batzordeak iazko diru kontuak aurkeztuko dizkie bazkideei, eta ondoren, aurtengo ekintzen berri emango dute. Ez da aldaketarik egongo, eta urtero legez bidaia bi egingo dituzte: bata, udaberrian eta bestea, udazkenean. Zuzendaritza batzordearen asmoa da udaberrian feriaren batera joatea, eta udazkenean, Errioxa aldera, mahatsa dagoen norabait. Hala ere, aurrerago erabakiko dituzte kontu horiek. Bidaiekin batera, Gabonetan mus eta briska txapelketak egiten jarraituko dute. Eta Antzuola, Elgeta eta Gatzagako udalek osatutako Bideberri Mankomunitatetik dirulaguntza jasoko dutela jakinaraziko diete bazkideei.

**BATZORDE ALDAKETARIK EZ**

Zuzendaritza batzordearen aldaketarik ez dute aurreikusi. Pedro Mari Elkorobarrutia da presidentea, eta Anjel Aranburuzabala presidente ordea. Idazkaria, Juan Mari Makazaga; diruzaina, Pantxi Ibarzabal; eta bokala Maritxu Plazaola. Kide batzuek, Makazagak eta Plazaolak esaterako, bederatzi urte daramatzate, baina boluntariorik ez dagoela, eta karguan jarraitzeko eskatu diete.

**ARAMAIO**> OSKAR ARANA

# EIZIEko lehendakari berria da Oskar Arana aramaioarra

## Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkartearen zuzendaritza hartu du Aranak

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

EIZIEren batzar nagusiak 2008ko ekintza plana onartzearekin batera, elkartearen zuzendaritza berritzea erabaki zuen. Oskar Arana aramaioarra izango da aurrerantzean lehendakaria eta Itziar Otegi lehendakariordea.

Aramaioarrak gustura hartu du izendapena: "Pozik nago, lanerako prest eta erantzukizuna hartzeko prest. Gainera, oso lan-talde ona daukagu eta ziur nago lan izugarri ona egingo dugula".

Zuzendari izendatu izanak ez du ezustean hartu Arana: "Beatriz Zabalondok kargua utzi zuenean, eta kontuan hartuta ni lehendakariordea nintzela, banekien txartel asko neuzkala hurrengo EIZIEko lehendakari izateko. Baina gustura hartu dut erantzukizuna".

**PAUL AUSTERREN LAN BERRIA**

Paul Austerren *Man in the dark* liburua itzultzen ari dela azaldu digu Oskar Aranak. Adierazi du, baina, oraindik ez dakiela nola izango den liburuaren euskarazko izenburua: "Itzultzaileok bukaerarako uzten dugu beti izenburua". Aranak itzultzen duen Paul Austerren hirugarren liburua da hau. *Brooklingo erokeriak* eta *Bidaiak scriptoriumean zehar* liburuak ere aramaioarrak itzuli ditu-eta.



**OSKAR ARANA** Aramaioarra EIZIEko zuzendari berria da. GOIENKARIA

**ANTZUOLA** > LITERATURA

# Solasaldia izango da eguenean Katixa Agirre idazlearekin Olaranen

## Gurasoendako ikastaroa antolatu dute 0 eta 3 urte arteko umeen jolasak eta kantuak irakasteko

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA

Datorren eguenean, martxoaren 13an, Katixa Agirre idazle gaztearen solasaldia izango da 18:30ean Olaran etxean. Besteak beste bere azken lana *Sua falta zaigu* izango du hizpide.

Liburutegian umeendako ipuin kontaketa saioak antolatzen dituzte noizean behin eta asmoa da urtean behin gutxienez gazte eta helduek ere izatea idazleekin bertatik bertara berba egiteko aukera.

**IPUIN KONTAKETA ETA IKASTAROA**

Bestalde, martxoaren 14an, egubakoitzean, Mercedes Carrion Peruko ipuin kontalariaren saioa izango da 11:00etan Herri Eskolan. *Los cuentos de la bruja arruguitas* umeendako ikuskizunean ipuinak eta magia uztartuko ditu.

Horretaz gain, ikastaroa ere antolatu dute 0 eta 3 urte arteko umeen jolasak eta kantak ikasteko gurasoek: esku jolasak, korru jolasak, zabuetan ibiltzekoak, mimika jolasak, trebetasun jolasak, lo kantak, jatekoak, altzoan hartu eta kantatzekoak, errezitatzekoak…

Apirilaren 8an, 15ean eta 22an izango dira saioak 18:00etatik 20:00etara bitartean. Izena emateko azken eguna martxoaren 14a da eta liburutegira edo udaletxera jo behar dute interesatuek.



**> FUTBOLA**
Mondrak husna berdindu zuen Mojategin Aurreraren aurka **> 18**

**> ELKARRIZKETA**
Jon Urtzelai Eibar taldeko futbolari oñatiarra elkarrizketatu dugu. Eibarrek 1-0 irabazi zion zapatuan Cadizi, Ipuruan; Urtzelai pozik da egiten ari den denboraldiarekin **> 20**





**> ZIKLISMOA**
Markel Irizar bigarren, Paris-Nizako atariko etapan **> 19**

**IGERIKETA** > JUNIOR ETA PROMESA MAILAK

# Oñatiko eta Bergarako igerilariak txukun ibili ziren Gipuzkoako Txapelketan

**BERGARAN**
Gipuzkoako 17 talde lehiatu dira aste bukaeran Agorrosinen

**DEBAGOIENA** Aloña Mendi eta Bergarako 26 gaztetxok hartu dute parte txapelketan

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Junior eta promesa mailako Gipuzkoako Txapelketa jokatu zen aste bukaeran Bergarako Agorrosin Kirol Gunean: Aloña Mendiko zein Bergara Igeri Elkarteko ordezkariak txukun ibili ziren. Oñatiarren aldetik 15 igerilarik jardun zuten lehian eta etxekoen aldetik hamar lagunek hartu zuten parte. Era berean, urtetan Bergara Igeri Elkarteko presidente izandako Sabin Gallastegi zenari omenaldia egin zioten. Haren alargun Mila Inziartek lora sorta eta plaka oroigarria jaso zuen zapatuko jardunaldian.

**EMAITZA AIPAGARRIAK**

Emaitzei dagokienez, aipagarriak hauek: Ander Zarketa (lehena 200 m. bizkar estiloan eta 2.a 50 m-koan); Nielka Ibarguren (lehena 100 estiloetan, 2.a 50 m. bular estiloan eta 3.a 100 m-koan); Jone Ugarte (2.a 100 bularretan eta 50 m-koan), Mikel Labaka (2.a 50 m. librean eta 3.a 50 m. bizkarrean), Kepa Irizar (2.a 200 estiloetan), Ainhoa Guridi (3.a 200 estiloetan eta 2.a 100 m-koan), Aitor Alberdi (2.a 50 m. tximeletan), Ana Balentziaga (2.a 200 libreetan eta 3.a 200 m-koan), Iñaki Guridi (3.a 100 libreetan), Peru Alustiza (3.a 100 m. estiloetan). Taldeka, 4x50 libreetan, hirugarren sailkatu ziren Erik Iñarra, Peru Alustiza, Aitor Alberdi eta Mikel Labaka bergararrak.

**TOLOSARA ETA LASARTERA**

Junior eta promesa mailako igerilariek Tolosan izango dute hurrengo hitzordua. Usabalen jokatuko dira Euskal Herriko txapelketak, datorren aste bukaeran.




**IRTEERAN** Gipuzkoako 17 talde lehiatu dira aste bukaeran Bergaran, Agorrosinen. Irudian, Bergarako igerilari bat, bizkar estiloko proba bati ekin aurretik. J. ARANTZABAL

**PREFERENTEA** > MONDRA-AURRERA

# Goiko postuetarako lehian, puntu bakarra Mondrarentzat

MONDRA
**0-0**
AURRERA

**Mondra** > Ander, Andoni, Loiti, Illart, Arazkonaga, Gotzon, Ekain (Jokin, 71. min.), Heriz, Murua (Muxi, 64. min.), Lopez eta Alzola.

**Aurrera** > Izagirre, Egiguren, Bengoetxea, Gabella, Akarregi, Landarizar, Duarte, Martin (Lema, 87. min.), Aramaio (Jon, 35. min.), Badiola (Mikel, 82. min.), Lasarte (Iñigo, 82. min.)

**Bestelakoak** > Minutu bateko isilunea egin zuten Isaias Carrascoren alde.


**LEHIA** Mondrako eta Aurrerako jokalariak zapatuko norgehiagokan. A.E.

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ARRASATE

Mondrak eta Aurrerak ez zuten golik egin eta, ondorioz, puntu banarekin geratu ziren zapatuko partiduan. Lehia garrantzitsua zen bi taldeentzat; batez ere, sailkapeneko goiko postuetako taldetxoan aurrera egiteko. Ekain Garin Mondrako jokalariak partidu amaieran azaldu zuen bezala: “Orain, aurrean dauden taldeek tartea zabaldu egin digute”.

**EMAITZA JUSTUA**

Zapatukoa emaitza justua izan zen. Bi taldeek gogor egin zuten lan hiru puntuak eskuratzeko lehian; hala ere, ez etxekoek ezta ere Ondarroakoek ez zuten kontrarioa gainditu.

Lehenengo zatian, etxeko taldeak hainbat aukera izan zituen gola egiteko; baina, denak ezerezean geratu ziren. Aldagelatik bueltan, etxeko taldea indartsu zelairatu zen. Lehenengo minutuetan Mondrak izan zituen gol aukera onenak. Iker Lopezek buruz egindako erremate batean etxeko zaleek gola ospatu zuten; baina, baloia azken momentuan atezainak aldendu zuen.

**HERIZEK, BALOIA GURUTZATU**

Partidua amaitzeko 10 minutu falta zirela, Julen Herizek izan zuen eskura garaipenaren gola. Baloia area barruan jaso eta, errematea, gurutzatuta, kanpora joan zen gutxigatik. Azkenean, huts eta hutseko emaitzarekin amaitu zen norgehiagoka. Mondrak 7. tokian jarraitzen du, 40 punturekin.

Datorren astean, Arrasateko mutilek Aretxabaletara egingo dute bisita; UDAren aurka jokatuko dute. “Derbi guztiak bezala, partidu polita izango dela uste dugu”, esan zuen Garinek datorren asteko derbiaz galdetzean.

**PREFERENTEA** > ALOÑA-UPV VASCONIA

# Aloñak irabazi egin zuen, hamar jardunaldiren ostean

ALOÑAMENDI
**3-2**
UPV VASCONIA


**AZKOAGAIN** Asier Ugartek bi gol egin zituen atzo. JOSETXO ARANTZABAL

**A.E.** > OÑATI

Puntu premia izugarria zuen Oñatiko taldeak. Azken hamar partiduetan bi puntu besterik ez dituzte lortu. Hala, atzoko lehia hil ala bizikoa izan zen oñatiarrentzat; eta, ez zuten hutsik egin.

**GOL AUKERA ASKO**

Josu Zubia entrenatzailea pozik zegoen jokalariek egindako lanarekin: "Partidu guztietan bezala, jarrera ona erakutsi dute. Gertatzen dena da, gola egitea kosta egiten zaigula: bat egiteko, hamar aukera egin behar ditugu".

Lehenengo zatian lan ona egin zuten etxekoek. Aukera asko egin zuten baina gol bakarra: Asier Ugartek egin zuen, Roberto Idigorasen pasea aprobetxatuz. Hala, atsedenera gol bateko abantailarekin joan ziren oñatiarrak.

Bigarren zatian, Idigorasek egin zuen 2-0koa. Lasaitasunaren gola izango zela zirudien arren, Vasconiak 2-1 egin zuen jarraian. Gero, Asier Ugartek etxekoen hirugarren gola egin zuen. Baina, azkeneko minutuetan, Vasconiak bigarrena egin zuen eta sufritu egin zuen Aloñak epaileak partidu amaiera adierazi arte.

**PARTIDUZ PARTIDU**

Datorren astean etxean jokatuko du Aloñak; Zumaiakoren aurka, hain zuzen. Lehia garrantzitsua izango dela dio Zubiak.

**PREFERENTEA**

# UDAk berdindu egin zuen Trintxerpen

**A.E.** > BERGARA

Bi goleko abantaila izan zuten Arenazaren mutilek zapatuan Trintxerpen; baina, azkeneko minutuan, etxeko taldeak partidua berdintzea lortu zuen (2-2). Hala, UDA puntu bakarrarekin etorri zen Aretxabaletara.

**ESPINOSAREN GOLAK**

Zapatuko lehia garrantzitsua zen bi taldeentzat goiko postuetarako lehiari begira. Aretxabaletarrek ondo hasi zuten norgehiagoka; atsedenera gol bateko abantailarekin joan ziren eta bigarren zatiko lehenengo minutuan egin zuten bigarrena. Bi golak Iban Espinosak sartu zituen.

Baina, lehia amaitzeko 20 minutu falta zirela, Trintxerpek 1-2koa egin zuen eta 90. minutuan 2-2koa. Hala, puntuak banatu zituzten.

## emaitzak eta sailkapenak

### PREFERENTE MAILA

**Sailkapena**

| | Puntuak | JP |
|---|---|---|
| 1. **Real Union** | **50** | 25 |
| 2. **Ordizia** | **49** | 25 |
| 3. **Berio** | **46** | 25 |
| 4. **Trintxerpe** | **43** | 25 |
| 5. **UDA** | **42** | 25 |
| 6. **Ondarroako Aurrera** | **41** | 25 |
| 7. **Mondra** | **40** | 25 |
| 8. **Hernani** | **33** | 25 |
| 9. **Euskalduna** | **32** | 25 |
| 10. **Hondarribia** | **32** | 25 |
| 11. **Idiazabal** | **30** | 25 |
| 12. **Aloña Mendi** | **28** | 25 |
| 13. **EHU/UPV Vasconia** | **27** | 25 |
| 14. **Anaitasuna** | **26** | 25 |
| 15. **Zumaiako** | **24** | 25 |
| 16. **Eibartarrak** | **23** | 25 |
| 17. **Zestoa** | **22** | 25 |
| 18. **Touring** | **21** | 25 |

**Emaitzak**

| | |
|---|---|
| Aloña Mendi-Vasconia | 3-2 |
| Zestoa -Real Union | 1-2 |
| Idiazabal-Hondarribia | 3-0 |
| Anaitasuna-Berio | 1-1 |
| Eibartarrak-Ordizia | 1-4 |
| Hernani-Euskalduna | 0-0 |
| Trintxerpe-UDA | 2-2 |
| Mondra-Aurrera | 0-0 |
| Zumaiako-Touring | 4-0 |

**Hurrengoak**

Aloña Mendi-Zumaiako
Vasconia-Zestoa
Real Union-Idiazabal
Hondarribia-Anaitasuna
Berio-Eibartarrak
Ordizia-Hernani
Euskalduna-Trintxerpe
UDA-Mondra
Ondarroako Aurrera-Touring

### BESTELAKOAK

| **LEHENENGO ERREGIONALA** | |
|---|---|
| Intxurre-Bergara | 0-1 |
| Roteta-Antzuola | 2-1 |

| **BIGARREN ERREGIONALA** | |
|---|---|
| Aretxabaleta-Trintxerpe | 1-0 |
| Amaroz-Mondra | 1-2 |
| BTLS-Union Txiki | 3-2 |
| Elgeta-Eibartarrak | 1-2 |

| **OHOREZKO GAZTEAK, IGOERA** | |
|---|---|
| Aretxabaleta-Hondarribia | 3-1 |
| Bergara-Beasain | 5-3 |

| **OHOREZKO GAZTEAK, KOPA** | |
|---|---|
| Sto. Tomas Lizeoa-Aloña Mendi | 2-2 |
| Mondra-Elgoibar | 3-4 |

| **LEHENENGO MAILAKO GAZTEAK, IGOERA FASEA** | |
|---|---|
| Luberri-Aretx.Arizmendi B | 1-0 |

| **OHOREZKO KADETEAK, IGOERA** | |
|---|---|
| Añorga-Bergara | 3-2 |
| Aloña Mendi-Real Union | 0-1 |

| **LEHENENGO MAILAKO KADETEAK, IGOERA FASEA** | |
|---|---|
| Arrasate-Urola | 0-1 |
| Aretxabaleta-Aurrera | 4-3 |

| **OHOR. INFANTILAK, TXAPELDUN FAS.** | |
|---|---|
| Bergara-Aretx.Arizmendi | 2-1 |

| **EMAKUMEZKOAK, IGOERA** | |
|---|---|
| BTLS-Vasconia | 1-1 |

| **EMAKUMEZKOAK, KOPA** | |
|---|---|
| Mondra | atsedena |
| Arizmendi B-Mutriku | 1-6 |
| Bergara-Urola | 0-2 |

**ZIKLISMOA** > PARIS-NIZA

# "Pena izan da azken momentuan garaipenak ihes egitea horrelako lasterketa batean"

Atzo hasi zuten Paris-Niza itzulian, Markel Irizar oñatiarrak eskura izan zuen atariko etapa; baina, bigarren geratu zen



**IRIZAR** Oñatiarra, artxiboko irudi batean. GOIENKARIA

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Penatuta, etsita, zegoen Markel Irizar Euskaltel-Euskadi taldeko txirrindularia atzoko etapa amaieran. Paris-Niza itzuliko lehenengo etapan, erlojuaren kontrako etapan (4,6 km), eskura izan zuen garaipena. Azkenean, baina, Thor Hushovd (Credit Agricole) nagusitu zen, 5:28ko denbora eginda, Irizarrek baino lau segundo gutxiago.

"Munduko lasterketa onenetarikoa da. Gainera, gaurko etapako irabazlea, Paris-Nizako liderra ere jartzen da. Hortaz, pena izugarria izan da", azaldu zuen Irizarrek.

**INDARREZKO PROBA**

Hala ere, oñatiarra pozik zegoen egindako lanarekin. "Erlojuaren aurkako etapak indarrez irabazten dira. Hortaz, pozik nago", gaineratu zuen.

Garaipena eskura ikusi zuenean, lagundu dioten guztiekin gogoratu zela esan zuen: "Gainera, Xabati lehoia eramateak ilusioa egiten zidan". Atzokoak indarra eman diola esan zuen.

> SASKIBALOIA

## Mondragon Unibertsitateak ondo hasi du igoera fasea: 91-100 irabazi zuten Zornotzan

EBAra igotzea ahalbideratzen duen igoera fasea ondo hasi dute Arrasateko mutilek. Zapatuan Zornotzan jokatutako lehian 91-100 nagusitu ziren Merinoren mutilak. Hala, sailkapeneko lehenengo postuan jarraitzen dute arrasatearrek.

Gogoratu, lehenengo fasean egindako lanari esker, Arrasateko saskibaloi taldeak lehenengo postuan hasi duela igoera fasea, 15 punturekin. Hala, lehenengo postuari eustea izango da arrasatearren helburua; lehenengoa zuzenean igoko baita EBAra.

> ESKUBALOIA

## Aloña Mendiko neskek 20-15 galdu zuten Leioaren aurka eta dagoeneko mailaz jaitsi dira

Oñatiko neskek partidu garrantzitsua jokatu zuten zapatuan Leioan, Askartzaren aurka maila mantentzeko lehian. Baina, oñatiarrak urduri kantxaratu ziren eta huts asko egin zuten. Maiteane Ruiz entrenatzaileak adierazi zuen bezala: "Partidu txarra egin dugu". Hala, sailkapeneko beheko postuetan jarraitzen dute oñatiarrek eta liga amaitzeko partidu baten faltan maila galdu dute. Datorren urtean Euskadiko txapelketako preferente mailan jokatuko dute. Azken partidua etxean jokatuko dute.

> ESKUBALOIA

## Ford Mugarrik eta Bergarak galdu egin zuten Portugalete eta Barakaldoren aurkako lehiak

Arrasateko Ford Mugarrik 21-20 galdu zuen zapatuan Portugaleteren aurka. Arrasateko taldea sailkapeneko 10. postuan dago 19 punturekin. Datorren asten, sailkapenean bigarren postuan dagoen Egiaren aurka jokatuko dute arrasatearrek.

Bergarak ere galdu egin zuen bizkaitarren aurkako lehia. Barakaldoren etxean, 36-32 galdu zuten mahoneroek. Hala, sailkapeneko beheko postuetan jarraitzen dute: 12. postuan, bederatzi punturekin. Datorren astean Escolapios hartuko dute Labegaraietan.

Ford Espainiak 121 gr/km gaineko $CO_2$ igorpenak dituzten ibilgailuetan matrikulazio zergak bere gain hartzen ditu. Eskaintza honek hile bukaera arteko baliogarritasuna dauka. Eskaintza hau ez da baliogarria langile eta flotentzat. Focus gama, bataz besteko kontsumoa: 4,3-7,1 l/100 km. $CO_2$ igorpenak: 114-169 g/km.



Jon Urtzelai (Oñati, 1977) denboraldi txukuna egiten dabil Eibar taldean. Manex Mandiola entrenatzailearen konfiantza lortu du oñatiarrak eta orain arteko ia partidu guztiak jokatu ditu. Denboraldi erdia jokatuta, Eibar sailkapeneko erdialdean dago. Maila mantentzeko 50 puntu behar dituztela esan du oñatiarrak; helburua horiek lortzea izango da.

**Jon Urtzelai** > Eibarko jokalaria

# "Denboraldi hasieran lortutako puntuak orain eskertuko ditugu"

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

**Zapatuan, Ipuruan Cadizen aurka (1-0) jokatutako partidua baino lehenago izan ginen Urtzelairekin berbetan. Taldea ondo ikusten duela esan zigun oñatiarrak; gainera, Reala egiten ari den denboraldiaz ere berba egin genuen Urzelairekin.**

**Hamaikakoan tokia lortu duzu. Nola ikusten duzu zure burua, pozik zaude?**

Bai, oso pozik nago egiten ari naizen lanarekin. Aurtengo denboraldian partidu ia guztiak jokatu ditut; hiru partidu besterik ez ditut galdu.

Gainera, uste dut taldea oso denboraldi ona egiten dabilela; nahiz eta, azkenaldian, orain arte eman dugun maila baino zertxobait beherago ibili. Uste dut bai zaleak, bai elkartea eta bai taldekideak pozik gaudela egiten ari garenarekin.

**Espero zenuen hamaikakoan egotea?**

Zaila izango zela uste nuen; izan ere, bigarren B mailatik etorri nintzen Eibarrera. Nire asmoa partiduak jokatzea zen eta entrenatzaileak hasieratik eman zidan konfiantza. Iazko ia partidu guztiak jokatu nituen eta, aurtengoak ere bai. Alde horretatik oso eskertuta nago entrenatzaileari; gainera, konfiantza hori jasotzen duzunean, norberak ere modu egokian erantzuten du.

**Nola ikusten duzu taldea maila mantentzeko?**

50 puntu behar ditugu maila mantentzeko. Denboraldi hasieran egindako lan onari esker, puntu dezente lortu genituen. Goiko postuetan ere izan ginen. Orain, maila zertxobait jaitsi dugu; izan ere, denboraldia luze egiten ari zaigu. Baina, uste dut taldea ondo dagoela, ilusioarekin. 15 partidu falta dira denboraldia amaitzeko eta bost irabaztea nahikoa dugu maila mantentzeko. Hobe puntuak agudo eskuratzea, denboraldi amaieran larriturik ez pasatzeko.

**Orain, eskertuko dira denboraldi hasierako puntuak.**

Poliki-poliki gutxitzen doa atzekoekiko dugun tartea; hortaz, asko eskertzen da denboraldi hasieran lortu genituen puntuak. Aurtengo urteko zenbakiak kontuan hartuko bagenitu, jaitsiera postuetan egongo ginateke. Hortaz, eskertzekoa da hasieran lortu genituen puntuak.

**Zergatik uste duzu taldeak maila jaitsi duela?**

Ez dakit; hainbat lesio eta baja izan ditugu. Nik uste dut beti maila bera mantentzea zaila dela. Futbolaren berezitasuna hori da, ez dela jakiten zeinek irabaziko duen. Goiko postuetan dauden talde gehiagori irabazi diegu beheko postuetan daudenei baino. Bigarren maila oso parekatua da.

**Zelako entrenatzailea da Manix Mandiola?**

Oso argi dauka bere kontzeptua eta, oso argi azaltzen dizkigu gauzak jokalarioi. Ez da aurkariak analizatzen dituen entrenatzailea; baina, argi dauka zer atera gura digun guri. Gainera, aldagelan giro ona sortzen jakin duen entrenatzailea da Mandiola; eta, hori, kontzeptuak buruan sartzea baino garrantzitsuagoa izaten da askotan.

**Zein da Eibar bezalako talde batean jokatzearen gauza onena?**

Eibar jende askok tranpolin bezala erabiltzen du. Aurrekontu txikia daukan taldea da Eibar; hortaz, bigarren B mailako jokalariak erosten ditu Eibarrek. Bestalde, elkarte txikia da. Ondo antolatuta dagoen elkartea da baina txikia izatean, familia bat bezalakoa da. Presidentearekin hartu-eman zuzena izateko aukera ematen du Eibarrek eta hori ez da beste elkarte batzuetan gertatzen.

MANDIOLA

**"Gauzak argi ditu Mandiolak eta, badaki zer atera gura digun jokalarioi"**

REALA

**"Nik uste baino denboraldi hobea egiten ari da Reala; ea igotzea lortzen duten"**

ETXABE

**"Errekuperatu ezinda dabil, hortaz berriro begiratu behar diote zer duen ikusteko"**



Jon Urtzelai jokalari oñatiarra, etrenamendu saio baten. ARGAZKI PRESS

**Reala nola ikusten duzu?**

Lagunekin asko berba egiten dut Realaren gainean. Reala gaizki ibili den momentuan ere hor egon da; hortaz, orain ondo dabilela gero eta gorago dago. Badiolak egin dituen aldaketekin, jende ona ekarri du, kalitatezkoa. Argi dago denboraldi amaieran bost edo sei talde egongo direla igoera postuetarako lehian; eta, Reala hor egongo da. Ea lehenengo mailara igotzen den; hala ere, egoera zaila dela uste dut. 15 partidu geratzen dira eta gauza asko pasa daiteke.

**Espero zenuen Realak ematen ari den maila emango zuela?**

Egia esan, nik uste nuen okerrago ibiliko zirela. Jaitsiera baten ondoren, psikologikoki aurrera egitea zaila da. Orain arte joko aldetik ez dira oso fin ibili; baina, poliki-poliki taldea aurrera doala ikusten da. Gainera, emaitza onek konfiantza ematen dute. Hortaz, ea amaieran hiru onenen artean dagoen

**Etxaberi berriro artroskopia egin behar diote. Nola dago?**

Errekuperatu ezinda dabil; hortaz, berriro begiratu behar diote. Urria edo azaroan hasi behar zen jokatzen; baina, dagoeneko martxoan gaude eta ez dago jokatzeko moduan.

**Datorren urtean Eibarren jarraituko duzu?**

Ez dakit. Kontratua ekainean bukatzen zait eta gero, ikusiko dugu zer gertatzen den.

OÑATI

# Epailearen erabakien aurrean jarrera ezberdina izaten dute gaztetxoek

**SASKIBALOIA** Oñatiko laugarren mailako neska mutikoek saskibaloian jokatu zuten zapatu goizean Zubikoako kiroldegiko kantxan

**EPAILEAK** Partiduetan epaileen erabakiekin ados egoten diren edo ez galdetu diegu kirolari gaztetxoei; denetik erantzun dute

**GIROA** Eguraldia lagun izan ez arren, hainbat lagun joan zen Zubikoako kantxara neska-mutikoen nondik norakoak ikustera

**ARANTZAZU EZKIBEL** > OÑATI

Oñatiko neska-mutikoek eskola kiroleko 17. jardunaldia jokatu zuten zapatuan; hainbat kiroletan ibili ziren. Nagusitxoenek, 5. eta 6. mailakoek, Zubikoa kiroldegiko kantxa berrian eskubaloian jokatu zuten. 3. eta 4. mailako neska-mutikoek, berriz, kantxa berdean saskibaloian jokatu zuten.

**EGINDAKOAREKIN GUSTURA**

Goizeko hotzari aurre eginez, Andraitz eta Kataberako taldeetako mutilak kirola egiteko jaiki ziren. Saskibaloian jokatu zuten; partidu amaieran, Kataberakoak nagusitu ziren. Andraitzeko mutilek, hortaz, galdu egin zuten. Hala ere, egindakoarekin "gustura" zeudela esan zuten.

Mutilen ondoren nesken txanda heldu zen. Haltza eta Haritza ibili ziren nor baino nor gehiago Zubikoako kantxan. Epailearen erabakiekin ados egoten diren galdetu genien; eta, erantzunak denetarikoak izan ziren. "Batzutan erabakiak kontrakoak izaten dira, baina, horregatik ez gara haserretzen", esan zuten Ainhoa, Amaia eta Maialenek partidua hasi aurretik.

**GURASOAK, HARMAILETAN**

Gaztetxoen gurasoak Zubikoa kiroldegiko harmailetan egon ziren kirolariei animuak ematen. Normalean, partiduak ikusten egoten dira; hala ere, guraso batzuei entrenatzaile lanak egitea egokitzen zaie. Gustura egiten dutela, argi dago.




MIREN ARREGI.

**Andraitz.** Gorka, Jason, Asier, Jon eta Danel dira Andraitz taldeko kideak.




MIREN ARREGI

**Katabera.** Gorka, Bittor, Unai, Mikel, Aitor eta Iñakik osatzen dute Katabera taldea.




MIREN ARREGI

**Altza.** Uxue, Amaia, Izaro, Sara, Jone, Leire, Ane eta Amaia dira Altza taldeko jokalariak.



MIREN ARREGI

**Haritza.** Nagore, Maialen, Naroa, Leire, Maider, Leire, Ainhoa eta Itziar dira Haritzako taldekideak.

## EPAILEAREN ERABAKIEKIN ADOS EGOTEN ZARETE EDO HASERRETU IZAN ZARETE INOIZ?



**Ainhoa, Amaia eta Maialen**
Haritza, Altza eta Ametsa

"Haserretu ez gara egiten, baina noiz edo noiz ez gara egon ados epaileak adierazi duenarekin", esan zuten hiru gaztetxo hauek zapatuan. "Batzutan, gaizki adierazten dituzte erabakiak eta gehienetan gure kontra izaten dira; hortaz, ados ez gaudela esaten diogu epaileari", gaineratu zuten.



**June eta Mirian**
Pagoa eta Ametsa

"Epaileak kontra adierazten digunean haserretu egiten gara; baina, gehienetan ez da hori gertatzen. Gero, gainera, partidua amaitzen denean denak elkarren lagunak gara; hortaz, ez gara haserretzen", esan zuten June eta Mirian gaztetxoek epaileen gainean galdetzean.



**Irati eta Haizea**
Ametsa

"Ez gara haserretzen; baina, batzutan gaizki adierazten dituzte erabakiak. Orduan, gure kontra bada behintzat, haserretu egiten gara. Baina, haserreak ez digu asko irauten", esan ziguten bi gaztetxoek. "Batzutan alde izaten dira erabakiak eta beste batzutan kontra", azpimarratu zuten.


2003
2004
2005
2006
2007
2008
2009
125 urte, etengabe, gure gizartearen ongizatearen alde lanean. Orain, adituek esaten digute publizitate-kanpaina handi baten bidez eman beharko genukeela aditzera. Baina ezagutzen gaituzu. Guk nahiago zuri ama-zelulen eta medikuntza birsortzailearen alorreko gure ikerkuntza-aurrerapenak erakutsi.
Inbertsio osoa Gizarte Ekintzan: 84 milioi €
Gizarte Ekintza, kutxaren izateko arrazoia.
AMA-ZELULEN UNITATEA
MIRAMON
08:30 08/02/22
zer nahi duzu bihar?
www.kutxa.net
kutxa

# G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



**> BERTSOLARITZA**
Joseba Igartua eta Xabier Pascual Oñatiko saioko irabazleak > 24



**> ERAKUSKETAK**
Muniategiandikoetxea eta Cele Otaño artisten lanak daude ikusgai > 25




**> KANTARI**
Eskoriatza eta Arrasateko neska-mutikoak Kantari saioan > 26




**> SENTENTZIA**
'Barrutik' diskoa kaleratu du heavy metal klasiko taldeak > 27




**THE WOGGLES** Oñatiko gaztelekuan zapatuan egin zuten kontzertuaren une bat.

JOSETXO ARANZABAL

# 1960ko hamarkadak hartu zuen Oñatiko Gaztelekua

The Woggles estatubatuarrek azken diskoa aurkeztu zuten entzuleak dantzan jarriz

Alakanteko Las Membranas taldekoen ardura izan zen giroa berotzea

**IÑIGO BIAIN** > OÑATI

Ikusmin handia nabari zen zapatuan, Gaztelekuan bildutakoen artean The Woggles taldeak euren azken lan bikaina, *Rock And Roll Backlash*, zuzenean nola aurkezten zuten ikusteko. Manfred *The Professor*, taldeko abeslari berritsu eta ikuskizuneko zuzendari gorenak, hasiera hasieratik sartu zituen Gaztelekuan bildutako 170 lagunak poltsikoan, eta denbora gutxi behar izan zuen georgiarrak guztiak dantzan jartzeko.

*Ramadan romance* izan zen soul, rock-and-rolla eta garaje kutsuko kontzertu biziari hasiera eman zion abestia, eta ondoren disko berriko hainbat abesti jo zituzten, abesti zaharragoak ere tartekatuz. Guztira 19 abesti eskaini zizkien entzuleei laukote amerikarrak, basatiak batzuk, surf-pop ukitu goxoagoa zutenak beste batzuk.

### ZIRIKATZAILE PROFESIONALAK

Manfred *The Professor* (ahotsa), Dan Electro (bateria jolea), Flesh Hammer (gitarra jolea) eta Buzz Hanstrom (baxu jolea) bikain aritu ziren. Ondo jotzeaz gain, jendea nola berotu badakitela ere garbi utzi zuten, publiko artera jaitsiaz (Manfred eta Buzz), zein ikusleekiko keinuak eginez; horren adibide, lehen *bisean* Dan Electro Euskaltel Euskadiko txandala jantzita atera zela.

*Hi hi pretty girl* eta *I gotta go now* izan ziren azken bi abestiak, errepertorioan ez zeuden arren, jendeak eskatuta berriz atera eta jo zituztenak. Amaiera bikaina!

### ALACANTEKO ERRITMOAK

Kontzertuari hasiera Alacantetik etorritako Las Membranas laukoteak eman zion Gaztelekua jendez betetzen hasi aurretik. Hala ere, garaje, fuzz, proto-punk eta mediterraneoko pop/ye-ye erregistroak bikain erabili zituzten jendea eurenganatzeko. Une oso intentsuak eskaini zituzten, *Chico formal*, *Subnormal* edo *Sin ti* bezalako abestiekin. Kontzertuaren ondoren, gainera, Alakantekoak Ona tabernan izan ziren disko jartzaile lanetan.

Bost euroren truke bi taldek 170 lagun dantzan jarri zituztela kontuan izanda, eztarria freskatzeko edaria izan zen han bildutakook Gaztelekuan faltan bota genuen osagai bakarra. Hala ere, kontzertu gogoangarria izan zen inondik ere!

**BERTSOLARITZA** > OÑATIKO BERTSO TXAPELKETAK

# Joseba Igartua eta Xabier Paskual finalera

Oñatiko bertso eskolaren txapelketako bigarren saioan, Joseba Igartua eta Xabier Pascualentzako izan ziren puntu gehienak




**ZAPATUKO SAIOA** Julen Romaratezabala, Joseba Igartua, Xabier Pascual, Mikel Kortabarria, Iñaki Olalde eta Gorka Larrea E. A.

**EGOITZ AIZPURU** > OÑATI

Zapatuan jokatu zen Oñatiko bertso txapelketako bigarren kanporaketa. Gorka Larrea, Julen Romaratezabala, Mikel Kortabarria, Iñaki Olalde, Joseba Igartua eta Xabier Pascualek jardun zuten bertsotan, Mirari Sagarzazu gai jartzaileak gidatuta.

Kanporaketa guztiak moduan, zapatukoa ere, Pako tabernan izan zen; ikusmina zegoen saioa hasi aurretik, jende asko hurbildu zen eta denak isilik eta zain zeuden bertsolariek zer kantatuko entzuteko gogoz.

**SAIOA ARIKETAZ ARIKETA**

Agur sendoekin ekin zioten parte hartzaile guztiek saioari. Zortziko nagusian izan zen lehen ariketa puntuagarria; Joseba Igartuak eta Julen Romaratezabalak osatu zuten lanik borobilena. Igandeko hauteskundeei buruz kantatu zuten. Ondoren zortziko txikiko moldean kantatu behar izan zuten; Iñaki Olaldek eta Joseba Igartuak eman zuten bertso mailarik altuena. Lau oinak eman eta bi punturi erantzuterako orduan, guztiek zeresana eman bazuten ere, Xabier Pascualek osatu zuen lanik txalotuena.

Kartzelako lanean, guztiek gai berdinari buruzko bertso bakarra kantatu behar izan zuten. Gorka Larrea eta Joseba Igartuaren bertsoek berotu zuten tabernako giroa herriko kanpandorrearen paperean kantatuz.

Azken agurrek denbora eman zieten epai mahaikideei batuketak egin zitzaten; batuketa horien emaitzak argi utzi zuten saioko puntuazio altuena Joseba Igartuak lortu zuela. Bigarren postuan, berriz, Xabier Pascual sailkatu zen. Hori horrela, aipatutakoak, martxoaren 29an, Arrano Elkartean jokatuko den finalerako hautagaiak izango dira, aurreko asteko kanporaketa irabazi zuten Joseba Lasagabaster eta Ander Lizarralderekin batera.

**DATORREN ZAPATUAN**

Hurrengo kanporaketa datorren zapatuan izango da, Pako tabernan, 18:00etan. Arantzazu Sagarzazu, Beñat Alberdi, Endika Ruiz, Iñaki Igartua eta Egoitz Atxaga arituko dira nor baino nor.

**MUSIKA** > ORFEOI TXIKI, ORFEOI TXIKITXO ETA GABERO ABESBATZAREN KONTZERTUA

# Abeslariak eta ikusleak ere gustura emanaldiarekin

Euskal kantuak, elizakoak eta beste kultura batzuetakoak eskaini zituzten ikuslez betetako Mariaren Lagundian izan zen kontzertuan

**A. ARANBURUZABALA** > BERGARA

Polita izan zen Orfeoi Txiki, Orfeoi Txikitxo eta Gabero abesbatzak, egubakoitzean Mariaren Lagundia elizan egin zuten kontzertua. Abeslariek gustura egin zuten kantuan, adin guztietako ikusleek betetako elizan. Herriko abeslarien harrobia segurtatuta dagoela erakutsi zuten.

Euskal kantuak, elizakoak eta beste kultura batzuetakoak eskaini zituzten ia bi ordu iraun zuen emanaldian. Aitor Biainek zuzendu zituen 6 urtetik 18 urte bitarteko abeslariak; Eli Mendiarazek, berriz, pianoa jo zuen. Zuzendaria ere gustura zen erakutsitako lanarekin: "Txikitxoentzako, bereziki, oso egun berezia izaten da, desiratzen egoten dira jendaurrean kantatzeko. Bukatu orduko hurrengo kontzertua noiz zen galdetzen zidaten. Gaberokoak ohituago daude, emanaldi gehiago egiten dituzte-eta". Aretoa aproposa dela dio Biainek: "Mariaren Lagundiko eliza erosoa da kantatzeko, ikusleentzako txiki samara den arren".

**ABESLARIENTZAKO ATEA ZABALIK**

Abesbatzetan parte hartu nahi duenak, eguenetan, 18.30ean diren entseguetara hurbiltzeko gonbitea egin du Biainek.



**ORFEOI TXIKITXO** Egubakoitzeko emanaldiko une bat. AITZIBER ETXEBARRIA



**Jesus Zulet** > Karikatura egilea

# "Hil zenean hasi nintzen Otaño ikertzen; haren lanekin liluratuta nago"

**A.ARANBURUZABALA** > BERGARA

**Jesus Zulet (Iruñea 1955) marrazkilari lanetan dabil 1981. urtea geroztik. Madrilen bizi da egun; egubakoitzean, Bergarako Aroztegi aretoan zen, Cele Otaño karikatura egilearen erakusketan egin genuen harekin hitzordua.**

**Urteetako eskarmentua duzu marrazkilari moduan.**

Arkitektura ikasketak hasi nituen arren, segituan konturatu nintzen beste era bateko marrazkiak nituela gustuko; marrazkien bitartez komunikatzeko beharra nuen. Lehen lan serioa, San Ferminetako peñentzako egin nuen. Publizitatean eta txontxongilogiloekin lan egin ondoren, 1986tik 1989ra urtera, *Deia* egunkarian jardun nuen; azken 17 urtetan, Vocento taldean nabil. Horrez gain, Madrilgo Alcala Unibertsitatearen umore grafikoari buruzko fundazioko kide naiz. Proiektu asko ditugu, horien artean, umore iberoamerikarraren museoa egitea.

**Otañoren erakusketara etorri zara. Ezagutzen zenuen?**

Ez, pertsonalki ez nuen ezagutu. Egunkarian bere heriotzaren albistea irakurri nuenean pertsonaia interesgarria iruditu zitzaidan eta familiarekin harremanetan jarri nintzen.

**Otañoren familiak oso gustura hartu zuen zure deia.**

**"Cele Otaño aurretik zihoan; gaur egun egiten diren gauza asko, berak aurrez egiten zituen"**

**"Mozorrotuta bada ere, zentsura badago. Gai ekonomikoak kritikatzea da egun, zailena"**

Anekdota polita da, bai. Albistea irakurri nuen egunkarira deitu nuen familiarekin harremanetan jartzeko; han nire deiaren berri eman ziotenean, alaba emozioz negar malkotan hasi zen. Otañok, erbestetik etorri zenetik, nire marrazki guztiak gordetzen zituela kontatu zidaten gero.

**Familiarekin, Bilbon Otañoren erakusketa jarri zenuten.**

Sortzen ari ginen Euskal Ilustratzaileen elkartearen lehen ekintza izan zen. Familiak zituen lanekin eta Venezuelatik berreskuratu genituen beste batzuekin osatu genuen. Lan horiek dira orain hemen ikusgai daudenak.

**Nola azalduko zenuke Celeren lana?**

Liluratu egin ninduten.Gero ago hain modan jarri ziren argazkien negatiboak erabiliz egiten dituen grabatuak asko gustatzen zaizkit. Karikaturak oso sintetikoak eta espresiboak dira. Margoak ordea, kolore bizikoak eta sintetikoak direla esango nuke. Baina benetan hunkitzen nauena, bere bizitzaren zati handi bat Nikaraguako indioen zeramika aztertzeari eskaini ziola da.




Jesus Zulet, Aroztegin dagoen Cele Otañoren erakusketan. A. A.

**Cele Otaño pausu bat aurrerago zegoela diozu. Zergatik?**

Gaur egungo pentsalarien eta filosofoen eztabaidetan ardatzetariko bat, marrazkiek komunikatzeko duten gaitasuna da. Otañok erabiltzen zuen *ikusten ikasi* leloa ere bide horretatik doa.

**Otañok moduan, zuk ere prentsan egiten duzu lan.**

Eguneko gaia irudi bilakatzea dut ogibide. Pentsa erazten duten marrazkiak, errealitatearen aurpegi anitzak erakusten dituztenak, zabalik daudenak, eta errealitatea besteko konplexuak direnak egitea dut helburu. Gaia nik aukeratzen dut; hori da zailena. Irudiak ordenagailuarekin egiten ditut. Aspalditik erabiltzen dut, sekulako tresna da.

**Astelehenerako irudia buruan duzu?**

Azkeneko unera arte ez dut izango, errotatibara bidali aurretiko azkeneko segundua agortuko dut.

**Zentsurarik izan duzu sekula?**

Erretiratu izan dizkidate irudiak. Mozorrotuta dagoen arren, zentsura badago. Gaur egun, gai politikoengatik baino, ekonomikoengatik dago zentsura handiagoa. Pentsa ezina da dirua ematen duena kritikatzea!

## Cele Otañori buruzko erakusketa Aroztegi aretoan

Jende asko hurbildu zen egubakoitzean zabaldu zuten erakusketara. Han ziren: hainbat legealdietako udal ordezkariak, Otañoren senideak (Bergarakoak eta kanpoak)... Miguel Angel Elkoroberezibarrek, Jesus Zuletek, Enara Mingezek, Sara Otañok eta Ricardo Otañok hitz egin zuten. Martxoaren 30era dago zabalik.



Irudian, Jesus Zulet, Ricardo Otaño, Sara Otaño eta Miguel Angel Elkoroberezibar. A.A.

**ERAKUSKETA** > MUNIATEGIANDIKOETXEA KOLDO MITXELENAN

# Premia gorritik sortutako udaberri urdina

Eguenetik zabalik du Koldo Mitxelenan Manu Muniategiandikoetxeak 'Behar gorria. Primavera azul' izeneko erakusketa

**ENEKO AZKARATE** > DONOSTIA

"Manu naiz eta pintorea naiz". Hori dio Muniategiandikoetxea artista bergararrak. Horretaz, behintzat, ziur da. Gainontzean, zalantzak edo ziurgabetasunak irensten du; eta gustura dago. Sortzen laguntzen dio horrek.

Bergararrak 2001ean Miami Beachen (AEB) erakusteko prestatutako proiektu batetik abiatu eta beste zazpi proiekturekin osatu du Koldo Mitxelenako erakusketa: Iruñeko Baluarterako egindakoak, marrazki erotikoen liburürako egindakoak, Donostian eraikiko duten Bosgarren Zubirakoak..., zortzi arte. Zortzi proiektu eta zortzi gune, erakusketa aretoak eskaintzen dizkion tarteak aprobetxatuz, espaziora egokituz, erakusketa aretoari berari ere protagonismoa emanez.

Margolanak eta eskulturak ikus daitezke — baita marrazkien zirriborroak ere—, neurri askotarikoak. Kolore gorriak urdinak eta beltzak dira nagusi.

Egueneko inaugurazio ekitaldian lagunartean egon zen Muniategiandikoetxea. Bergarako pintoreen ordezkariak ere ikusi genituen. Han elkartu ziren, De Pedro, Arenaza eta Laskurain, esaterako.

Maiatzaren 19era arte dago zabalik erakusketa, martitzenetik eguenera, goiz eta arratsaldez. Jendea erakusketa ikustera etortzeko animatu du artistak: "Umeek ikusten duten bezala ikustera etortzeko, hunkitzeko, disfrutatzeko, ez etsamina egitera doana bezala, esperientzia bat izatera doana moduan baizik".



**BERGARARRAK** De Pedro, Muniategiandikoetxea, Arenaza eta Laskurain. E.A.

Kantari Debagoienean

# Saioen emanaldiak GOITBn



**NOIZ >** Martxoaren 11n.
**ORDUA >** 20:15ean.
**TALDEA >** Ainitze Biteri, Ane Eraña, June Lartzabal eta Leire Caceres.
**HERRIA >** Eskoriatza.
**ADINA >** 8 urte.
**ABESTIA >** *Gau txori.*



**NOIZ >** Martxoaren 13an.
**ORDUA >** 15:00etan.
**TALDEA >** Alaine Olabarria, Ane Errarte, Iraitz Gutierrez eta Miren Heriz.
**HERRIA >** Arrasate.
**ADINA >** 11 eta 12 urte.
**ABESTIA >** *Kalanbrea.*



**NOIZ >** Martxoaren 11n.
**ORDUA >** 20:15ean.
**TALDEA >** Josu De la Torre eta Julen Zubiaga.
**HERRIA >** Eskoriatza.
**ADINA >** 8 urte.
**ABESTIA >** *Ilargia.*



**NOIZ >** Martxoaren 13an.
**ORDUA >** 15:00etan.
**TALDEA >** Jone Perez, Marina Hernandez, Marixe Ruiz de Austri eta Nerea Madinabeitia.
**HERRIA >** Arrasate.
**ADINA >** 8 urte.
**ABESTIA >** *Katuen testamentue.*



**NOIZ >** Martxoaren 11n.
**ORDUA >** 20:15ean.
**TALDEA >** Miren Zubillaga, Nerea Barriocanal eta Nerea Bastardo.
**HERRIA >** Eskoriatza.
**ADINA >** 10 urte.
**ABESTIA >** *Marea gora.*



**NOIZ >** Martxoaren 13an.
**ORDUA >** 15:00etan.
**TALDEA >** Ainhize Artetxe, Leire Otxoa, Maider Azkarate eta Nerea Goñi.
**HERRIA >** Arrasate.
**ADINA >** 8 eta 9 urte.
**ABESTIA >** *Mezulari ixila.*



**NOIZ >** Martxoaren 11n.
**ORDUA >** 20:15ean.
**TALDEA >** Beñat Arrieta, Beñat Ilarramendi eta Iban Olalde.
**HERRIA >** Eskoriatza.
**ADINA >** 11 urte.
**ABESTIA >** *Arratsalde honetan.*



**NOIZ >** Martxoaren 13an.
**ORDUA >** 15:00etan.
**TALDEA >** Eider Lopez, Irene Errarte, Leire Azkarate eta Olaia Gonzalez.
**HERRIA >** Arrasate.
**ADINA >** 9 eta 10 urte.
**ABESTIA >** *Nere herri.*



**NOIZ >** Martxoaren 11n.
**ORDUA >** 20:15ean.
**TALDEA >** Asier Artzaburu, Martin Perez eta Jon Isazelaia.
**HERRIA >** Eskoriatza.
**ADINA >** 10 eta 11 urte.
**ABESTIA >** *Narama.*



**NOIZ >** Martxoaren 13an.
**ORDUA >** 15:00etan.
**TALDEA >** Aitor Uribetxeberria, Ander Raso, Mario Jurado eta Mikel Mondragon.
**HERRIA >** Arrasate.
**ADINA >** 10 urte.
**ABESTIA >** *Ilargia.*




SENTENTZIA

# "Heavy metal klasikoa lantzen dugu, baina ahots argiarekin"

*Barrutik* izeneko diskoan euskaraz abestutako zazpi kanta eta Mikel Urionaguenak egindako bideoklipa daude

Besteak beste, Metallica, Judast Priest, Yngwie Malmsteen, Rage eta Iron Maiden dira Sententzia taldeak dituen erreferente nagusienak

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

**Sententzia taldeak disko berria kaleratu du. Lau kide dituen taldeak Bergaran entseatzen du, eta kideetako bat bergararra da, hain zuzen, Iker Narvaez bateria-jotzailea. Harekin egin dugu berba.**

**Hasteko, nortzuk zarete Sententzia?**

Lau herritako lagunek osatzen dugu: Mutrikuko Igor Lezertua da gitarra-jotzailea, Eibarko Oliber Losada, ahotsa eta baxua, Donostiako Iñigo Lurgain eta Bergarako Iker Narvaez garataldeko bateria-jotzaileak.

**Noiz sortu zen taldea eta zergatik?**

Taldea duela dela bi urte sortu genuen Bergaran. Aurretik Igor eta biok Dragonfly taldean jotzen ibili ginen, baina denboraldi batera taldea banandu egin zen. Hala, alde batetik Lord Witch, eta, beste aldetik Sententzia taldeak sortu genituen. Hasieran Igor eta ni neu ibili ginen abestiak konposatzen. Ondoren Oliber ezagutu genuen, eta hirurok, Sententzia taldea sortu genuen.

**Nolako da taldearen lehen diskoa?**

*Barrutik* du izena diskoak, eta zazpi kanta eta Mikel Urionaguenak egindako bideoklipa ditu. Gainera, abestiak nahiko zuzenak dira. Diskoko kanta bat instrumentala da, baina beste guztiek ahotsa dute. Gainera, kanta guztiak euskaraz abesten ditugu.

**Zer musika lantzen duzue?**

Gure musika heavy metal klasikoa dela esan genezake, abestiek, gehien bat, ukitu heavya dute-eta. Dena dela, batzuetan rock doinuak erabiltzen ditugu. Hori guzti hori, ahots argi eta melodikoarekin nahastu dugu.

**Non grabatu duzue diskoa? Eta, banaketa, nola egin duzue?**

Diskoa orain dela urte bete hasi ginen grabatzen Donostiako estudio batean. Estudio hura taldeko bigarren gitarrarena da eta han ezagutu genuen Iñigo. Nahasketak Garate estudioan egin genituen Martxel Arkarazorekin eta Aritz Harreguyrekin. Azkenik, masterra Lorentzo Records-en egin genuen Aitor Ariñorekin.

**Non dago diskoa salgai?**

Hainbat dendetan jarri dugu diskoa salgai. Gainera gure kontzertuetan ere eros ahal izango da. Bestalde, banaketa Discos Suicidas eta Gor etxeek egin dute.

**Zeintzuk dira zuen talde erreferenteak?**

Egia esan, talde eta estilo ezberdinak entzuten eta jarraitzen ditugu, besteak beste, Metallica, Sober, Judas Priest, Yngwie Malmsteen, Iron Maiden eta, Rage. Euskal Herriko hainbat talderen eragina ere eduki dugu.

**Nolakoak dira zuen zuzenekoak?**

Entzuleak ondo pasatzea eta abestiak gogoko izatea da kontzertuetarako dugun helburu nagusia. Guk oso ondo pasatzen dugu kontzertuetan, eta dugun guztia ematen ahalegintzen gara.

**Sententzia taldeko kideak beste talde batzuetako kide izan zarete edo zarete.**

Bai, hala da. Oliber Eibarko Luther taldean ibili zen denboraldi baten, eta orain Gaubelan jotzen du. Igorrek Dragonfly taldean jo zuen. Eta nik, Supercools, Cool Panic eta Dragonfly taldeetan jo nuen, eta orain, Lord Witch eta Aby-Kem taldeko kide naiz.

**Zu nola moldatzen zara denera iristeko?**

Errelebotan lan egitean, batzutan egun batean bi entsegu eduki ditut eta nahiko gogorra izaten da. Baina, emaitza ikusita, merezi du.




## 'Barrutik' diskoan 7 kanta eta bideoklipa

Sententzia taldeko *Barrutik* izeneko diskoak zazpi kanta ditu: *Nahikoa da, Sutan, Izarretan, Gauaren eromena, Barrutik, Desioaren itzala* eta *Taupadak*. Aldiz, bideoklipa *Sutan* izenekoa da. Gainera, kanta instrumentala ere egin dute. Guztietan, heavy metal klasikoaz gozatzeko aukera dago.

Abestien letrak egunerokо bizitzan "oinarrituta" daude. "Hainbat gai erabili ditugu kantak idazteko, besteak beste, amodioa, sentimenduak, sexua, tortura, eta parrandak", esan digute.

Mireia Bikuña

## gazte zerbitzuak

### BEKAK

**> Informazioa eta komunikazioa.** Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa. Informazioa eta Komunikazio teknologiak hezkuntzan aplikatzeko 9 beka eskaintzen ditu. Epea: martxoko 19.

**> Bolondresak.** Unesco Etxea. UNESCOk Hegoaldeko herrialdeetan dituen bulegoetan bolondres aritzeko bekak eskaintzen ditu. Epea: martxoak 20.

**> Frantzesa eta alemana.** Hezkuntza eta Zientzia Ministeritza. Udan atzerrian frantzes edo aleman ikastaroak burutzeko dirulaguntzak, unibertsitateko ikasleentzat edo goi mailako arte ikasleentzat. Epea: martxoak 27.

### LEHIAKETAK

**> Manga.** Motsukora Elkartea. Manga komikia eta manga maskota lehiaketa. Epea: martxoak 25.

**> "Gomendatzen dizut, merezi du!". 2008.** Gipuzkoako hainbat Gazte Informazio Bulego parte hartzen dute. Informazio gehiago *www.aizue.com* blogean. Epea: irailak 30.

### LANA

**> Peoia.** Bergarako Udala. Obra eta Zerbitzuetako peoi postua betetzeko lan poltsa osatzeko deialdia. Epea: martxoak 11.

**> UEU.** Udako Euskal Unibertsitateko Iruñeako egoitzan teknikari bat behar dute. Epea: martxoak 10.

**> Kultur Laguntzaileen lan poltsa.** Arrasateko Udala. Probak martxoaren 12an egingo dira, goizeko 10:00etan Arrasateko Udalea.

**> Gizarte hezitzaileak.** Ostargi Elkartea. Gipuzkoako herrialde batzuetan garatzen ari diren giza-heziketa programa ezberdinetan lan egiteko gizarte hezitzaileak behar dira. Epea: Martxoak 14.

**> Zaintzaileak.** Uliazpi Fundazioa. Aldi baterako zaintzaile beharrak betetzeko lan poltsa osatzeko deialdia. Epea: martxoak 24.

gazte informazioa

**ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:**
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

**BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

**OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net

# IRAGARKI SAILKATUAK

Egubakoitz eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 25 05 05 sailkatuak@goiena.com**
**http://www.goiena.net/sailkatuak**

